

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Adam Ikatz kalean

RAMON SOLA > 11

MIKEL GONZALEZ: «Ziprera heldu nintzen lehen momentutik oso gustura sentitu nintzen» > 22

2022ko ekainaren 18a | XVI. urtea • 778. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## SAREGILEAK, HARIA GALTZEN ARI DEN OFIZIOA

ITSASONTZI BAT ITSASORATZEN DEN BITARTEAN, SAREGILEAK BEHARKO DIRA.

BAINA ERRELEBOA APAL SAMAR EMATEN ARI DA. > 16 Jon URBE | FOKU





**Diana Maidanic, Laura Raggio eta Silvia Reyes, «apirileko neskak» errepresioaren ikur Uruguain** 04

**Hondartza eta futbola, hauteskundeak baino garrantzitsuago Italian** 08

**Udako Euskal Unibertsitatea, 50. urteurrena ospatzeko prest** 12

**Saregileak, apaltzen ari den ofizio baten zuloak eskuz josten** 16

**Mikel Gonzalez: «Ziprera heldu nintzen lehen momentutik oso gustura sentitu nintzen»** 22

**Pantaila txikian: Telesail britainiarrak, 2022ko uzta** 27

**Juantxo Egañaren Behatxulotik** 31



## SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Bigarren aukera
- 10 **Oier Gorosabel:** Batezbestekora erregresioa
- 11 **Ramon Sola:** Adam Ikatx kalean
- 20 **Gorka Etxebarria Dueñas:** Zinema biografikoa
- 21 **Amaia Nausia:** Emakumeek ez dute inoiz ezer deskubritzen
- 25 **Joxean Agirre:** Ahots goraz
- 25 **Asier Aiestaran:** Sandaliak
- 26 **Alai Zubimendi**
- 30 **Arantxa Urbe:** Badoan ikasturteari begira



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

# Bigarren aukera

**M**aiatzaren 29an burutu zen Kolonbiako hauteskunde presidentzialen lehen itzulua. Ezkerrak inoiz lorturiko emaitzarik hoberena eskuratu zuen, bozen %40, bigarren hautagai bozkatuenak baino 12 puntu gehiago. Bada pozik egoteko eta ospatzeko motiborik, ezkerrak azkeneko urteetan Kolonbian egin duen aurrerapausoa nekez irudika baitzitekeen duela urte gutxi. Gustavo Petro eta Francia Marquez sekulako emaitza lortu dute. Dударik ez, baina bigarren itzulian zer gertatuko den ez dago idatzia. Bigarren eta hirugarren hautagaiak, Rodolfo Hernandez eta Federico Gutierrez, biak eskuindarrak, Petro eta Franciak baino 2.500.000 boz gehiago eskuratu zituzten. Federico Gutierrez bozkatu zuten guztiek ez dute automatikoki Rodolfo Hernandez bozkatuko, ezin da batuketa soil bat egin, baina argi dago boz horietatik gutxi batzuk baino ez direla Petroren aldera pasatuko.

Bihar Kolonbiaren etorkizuna norabide batean edo kontrakoan doan erabakiko dute hautesleek, bigarren errondara pasatutako bi hautagaiek oso kontrako proposamenak taularatu baitituzte. Ezkertiarra bata, populista eta ultraeskuindarra bestea. Bakearen, berdintasunaren eta aberastasunaren banaketaren aldekoa bata, elite eta aristokraziaren eskubideen aldekoa bestea. Mozorrorik gabeak biak; mezu zuzen eta argiekin.

FARCeekin Santosen gobernuak sinaturiko akordioaren etorkizuna gehiago edo gutxiago beteko den, ELNrekin izoztuta dagoen negoziazio prozesua berrartzen den edo ez, kolonbiar demokratizazioa, aberastasunaren eta lurren banaketa, emakumeen eskubideak, jatorrizko herrien eskubideak eta beste hainbat gai biharko hauteskundee-tan zer gertatuko zain, nork irabaziko zain daude. Petro eta Franciak irabaziz gero, Kolonbian bakeak aukera berria izango du. Rodolfo Hernandezek irabazten badu, aldiz, ez da aipaturiko gaietako batean ere inolako aurrerapausorik emango; are gehiago, atzerakada nabarmenak izango dira.

Hego Amerikan borroka etengabea da, proiektu ezker-tiar eta eskuindarren artean. Azkeneko bi hamarkadetan denetarik gertatu da Ameriketako herrietako bakoitzean. Uruguai, Argentina, Venezuela, Brasil, Honduras, Ekuador, Salvador, Mexiko... Borroka kontinental irabazita zegoela pentsatu genuenean, eta ondoren hainbatek ziklo progresistaren agorpena iragarri zutenean, eta eskuina boterea herriz herri berreskuratzen hasi zen unean, borroka galdu zela zirudienean, berriz ere, pixkanaka gobernu progresisten buelta etortzen hasi zen. Pepe Mujikak askotan errepikatu du, Amerikako ezkerrak iraultza armatuetatik borroka elektoralerako hautua egin zuenean, alternantzia eta emaitzak, joko arauak finean, onartzeko beharra zuela. E egunik existitzen ez dela onartzen badugu, ez dago betiko garaipenik, ez eta betiko galerarik ere. Argi dago, baina, ezkerrak urteen poderioz lortzen dituen aurrerapausoak eskuinak aste/hilabete gutxitan deuseztatzen dituela.

Europako ezkerria ez dago Amerikako ezkerriari lezioak emateko moduan. Borroka kontinental eta globala izan

Globalizazio garaiko eslogan famatuak, «Think global, act local», inoiz baino zentzu handiagoa dauka. Bai horrek eta bai bere kontrakoak: «Act global and think local». Finean, bien arteko uztarketa behar-beharrezkoa da.

behar dela ziotenek inoiz baino arrazoi gehiago dute. Elkarlana izan behar da etorkizuneko edozein proiektu ezkertiarren oinarria; borroka lokal eta globalaren arteko uztarketa. Globalizazio garaiko eslogan famatuak, “Think global, act local”, inoiz baino zentzu handiagoa dauka. Bai horrek eta bai kontrakoak: “Act global and think local”. Finean, bien arteko uztarketa behar-beharrezkoa da; tokian tokitik bakarrik, eta agenda global baten baitan erantzun ahalko zaie globalak, planetarioak diren erronkei. Kolonbian bihar gertatuko denak bidea erraztu edo zailduko du. Eta hurrengo geltokia, Brasil. •



# «APIRILEKO NESKAK»

Diana Maidanic, Laura Raggio eta Silvia Reyes, errepresioaren ikur Uruguain

 JENDARTEA / Ainara Lertxundi

**D**ominikar Errepublikan, Rafael Leonidas Trujillo-ren diktadura garaian, Minerva, Patria eta Maria Teresa Mirabal ahizpak, diktaduraren kontrako militante politikoak, hilik agertu ziren 1960ko azaroaren 25ean. Aldez aurretik, Minerva eta Maria Teresa atxilotuak, torturatuak eta bortxatuak izan ziren hainbatetan. Maiatzaren 18an epaitu eta zigortu zituzten beraien senarekin batera. Hiru urteko kartzela zigorra ezarri zieten, baina abuztuaren 9an, Trujilloren aginduz, aske utzi zituzten bi ahizpak, ez ordea haien senarrak. 1960ko azaroaren 25ean, diktadoreak hala aginduta, errepidean antzeman zituzten, etxe batera bahituta eramanez, azaroaren 25ean Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna ospatzen da.

Argentinan, diktadura garaian hau ere, baina 1976ko azaroaren 24an, ehunetik gora militar eta polizia Montoneros taldeko kide batzuk zeuden etxe bati eraso egin zioten La Platan helikopteroekin, granadekin eta kalibre handiko armekin. Barruan inprimategi klandestino bat zegoen. Kaleak itxi zituzten eta alboko tei-latueta igo ziren polizia eta militarrek.

Operatiboak lau ordu baino gehiago iraun zuen. Bost pertsona hil zituzten eta hiru hilabete zituen haurtxo bat bahitu zuten. Helikoptero ba-

Diana Maidanic, Laura Raggio eta haurdun zegoen Silvia Reyes Montevideoko etxebizitza batean tiroz eta granadekin hil zituzten 1974ko apirilaren 21ean, goizaldean. Diktadura uruguitarraren eta errepresioaren sinbolo bihurtu dute sarraskia. Senideek aitormena, erreparazioa eta justizia exijitzen jarraitzen dute.

tetik fosforo bonba jaurti zuten militarrek, eta hildakoen gorpuak, tartean haurtxoaren amarena –Diana Teruggi–, kiskaldu. 30. kaleko etxe hura, memoriarako museo bat da gaur egun. Aurrealdean eta barruan oraindik ikusgai dira tiroek eta granaden eztandek

eragindako zuloak. Operatiboak oihartzun handia izan zuen komunikabideetan. Montoneros taldeari eskarmentu bat eman nahi izan zioten Poliziaren eta Armadaren buruzagiek zuzenean parte hartu zuten operazio honekin. Maria Isabel Chicha Chorobik de Maria-

Diana Maidanic, Laura Raggio eta hiru hilabetez haurdun zegoen Silvia Reyes oroitzeko ipinitako seinaleak, Montevideoko Brazo Oriental auzoan, 1974ko apirilaren 21ean hil zituzten etxearen parean. APIRILEKO NESKAK INSTAGRAM

nik, Diana Teruggiren amaginarrebak, hil zen egunera arte bilatu zuen militarrek hiru hilabete zituela lapurtu zioten biloba, Clara Anahi Mariani Teruggi. Hasieran umea amaren besoetan hil egin zela esan zioten, baina lekukoei esker bizirik atera zutela jakin ahal izan zuen. Maiatzeko Plazako Amonen sortzaileetarikoa izan zen, baita erakundearen bigarren presidentea ere. 1989an Anahi Elkartea sortu zuen.

## BRAZO ORIENTALEKO SARRASKIA

Mirabal ahizpak Dominikar Errepublikan, 30. kaleko etxea La Platan, Argentinan, eta Uruguain «Apirileko neskak». 1974ko apirilaren 21eko goizaldean, diktadura bete-





beteen, Armadak eta Poliziak osatzen zuten Indar Batera-tuen komando batek Diana Maidanic, Laura Reggio eta hiru hilabetez haurdun zegoen Silvia Reyes tiroz eta granadaz josi zituzten Montevideon. 1973ko ekainaren 27tik, estatu kolpe baten ostean, 1985era arte luzatu zen diktaduraren pasarte gordinetarikoa bat izan zen hura. Lau hamarkada baino gehiago igaro badira ere, Estatu uruguaitarrak ez du inolako aitormenik egin, eta are gutxiago erreparazio adierazpenik edo ekitaldi ofizialik.

Hiriburuko Brazo Oriental auzo lasaiaren bidegurutze batean, neskatoen argazkiekin osatutako hiru trafikoko seinale daude. «Familiak betirako minduta gelditu ziren», nabarmendu zuen urteurrenaren harira Monica Wodzislavskik, Maidanicen lehengusinak Eferi eginiko adierazpenetan. Oso harreman estua zuten. Mota bereko irakurgaiak gustukoak izateaz gain, militantzia esperimentziak partekatu zituzten.

Gizarte borrokekin konprometituta, Haur Psikologiako ikaslea zen Maidanic. Laura Raggiorekin batera atxilotu zuten. Urtebete eta erdi preso egon ostean, aske utzi zituzten kuartelean hamabost egunetik behin aurkezteko aginduarekin. «1973. urtea amaitzear zegoela, jakinaren gainean jarri zituzten haiek berriro espetxeratzeko asmoa zutela militarrek. Klandestinitatera pasatu ziren biak», gogoratu zuen. Tupamaros Nazio Askapenerako Mugimenduaren (MLN-Tren) ekintzaileak ziren biak.

Diana Maidanic (22 urte) eta Laura Raggiok (19 urte) Uruguaitik ihes egin zuten itxura egin zuten. Silvia Reyesen senarrarengana, Washing-

**Asmoa, neskak Uruguaitik apirilaren 23 eta 24 bitartean ateratzea zen. Baina komando batek Washington Barrios eta Silvia Reyes bikotearen etxean harrapatu zituen**

**Operatibo bortitza bukatu ostean, senideak apartamentuan sartu zirenean, dena nahasita zegoen, paretak tiroz josita, odol arrastoeekin, nesken haragi eta ile zatiekin**



«Isiltasunaren martxa» Montevideon, maiatzaren 20an. Pablo PORCIUNCULA / AFP

ton Barriosengana, joan ziren laguntza eske, Argentinara alde egiteko paperak emango zizkien-eta. Apirilaren 20an, Barrios Montevideotik Buenos Airesera joan zen herrialde horretan ostatua lortu nahian. Asmoa, neskak Uruguaitik apirilaren 23 eta 24 bitartean ateratzea zen. Baina komando batek Barriosen eta Reyesen etxean, Mariano Soler eta Ramon de Santiago kaleen bidegurutzean, harrapatu zituen. Bertan beste bikote bat ere bazegoen, haurtxo batekin. 200tik gora jaurtigai bota zituzten etxearen barrualdera. Paretetan eta zoruan odol arrastoak gelditu ziren nesken ile eta gorputz zatiekin nahastuta.

#### ODOLEZ BETERIKO APARTAMENTUA

Barrios Kolonbian jaio zen, Cutcan, bertako futbol taldeak bere aita fitxatu baitzuen. Zuzenbidea ikasi zuen eta 1971. urtean Tupamaroen mugimenduan militatzen hasi zen. 1973an, oraindik bizirik eta aske zeuden buruzagiak Buenos Airesen elkartu ziren eta Uruguaitik ihes egin berriak bertan jarri zuten erakundearen bulego nagusia. Barriosek itsas agentzia batean lan egi-

ten zuenez, maiz Buenos Airesera joaten zen eta bere lanaren aitzakiapean militanteak nahiz materiala hara eta hona eramaten zituen.

Argentinako Langileen Alderdi Iraultzailearekin, Herriaren Armada Iraultzailearekin (ERP), Txileko Ezker Iraultzaile Mugimenduarekin eta Boliviako Nazio Askapenerako Armadarekin batera Iraultzaren Koordinazio Batzordea sortu zuten 1974an. Apirilaren 21eko operatiboaren helburua Barrios atxilotzea zen.

«Etxez etxe ibili ziren. Barriosen gurasoen etxera joan ziren, parean bizi zirelako. Semea non zegoen esateko agindu zioten aitari, eta nahiz eta bi metroko altuera izan gogor bultzatu zuten paretaren kontra. Aurreko etxean bizi zela baina une horretan kanpoan zegoela eta etxean haren bikotea bi lagunekin beste inor ez zegoela azaldu zien. Etxeko atea ostikoz puskatu ondoren, tiroketa hasi zen, leku guztietatik tiro egin zuten. Goizaldeko hiruretan gorpuak poltsetan atera zituzten. Militarrek izozkailua, sukaldea eta ohea eraman zituzten, etxean zegoen dena lapurtu zuten», adierazi

## «GORPUAN 30 TIROTIK GORA ZENBATU ZITUEN AITAK»

Stella Reyesek bikote bat eta haien haurtxoa ezkutatuta zituen bere apartamentuan. Militarren zaratak entzun zituenean, ihes egitea lortu zuen baina atxilotu egin zuten. Tortura saioetan ahizpa hilik zegoela eta paretetan haren haragi zatiak gelditu zirela esaten zioten. «Nik ez nien sinistu. Atxilotuen garrasi artean ahizparen ahotsa bilatzen nuen. Asteetara jakin nuen, kuartelean nirekin zeuden beste kide batzuek esanda, hilik zegoela. Bere gorpuan 30 bala zulotik gora zenbatu zituen aitak. Buruaren erdia falta zitzaion», gogoratu zuen.





zuen Horacio Raggiok, Lauraren anaiak, “Portal” hedabide ari eginiko adierazpenetan.

Senideak apartamentuan sartu zirenean, dena nahasita zegoen, paretak tiroz josita, odol arrastoekin, haragi eta ile zatiekin. 200 tiro baino gehiago zenbatu zituzten. «Soilik nire arrebaren hilkultura egon zen zabalik. Hori bai, gerritik behera txikituta zegoen», gaineratu zuen.

Tiro egiten lehenak militanteak izan zirela esan zuten militarren abokatuek eta operatiboaren burua, Juan Rebollo, zauritu egin zutela. «Hori ez da egia, haien arteko su gurutzatuan zauritu zuten. Etxe barruan armak zeudela ere esan zuten, baina lekukoek hori gezurtatu zuten. Baina garai horretan militarrek nahi zutena esan zezaketen, baita etxe barruan armategi bat zegoela ere. Nork jarriko zuen zalantzan haien bertsioa? Inork ere ez», gaineratu zuen atsekabetuta.

Javierrek zazpi urte zituen sarraskia gertatu zenean. Hura gogoratzean, begiak itxi eta kamioien zarata, oihuak, korrikaldiak eta ate eta leihoetako kolpeak gogoan ditu oraindik. Militarrek pentsatu zuten bere etxetik sartzen zela nesken apartamentura. Aitari galdetuta egin zioten, bera, ama eta arreba beldurrez begirazeuden bitartean.

Carlosek 19 urte zituen eta Juliok hamar. Boten zaratotsa, kolpeak eta oihuak gero eta hurbilago entzuten zirela esnatu ziren. «Atea ireki edo bo-

Diktadura garaian atxilotu eta desagerrarazitakoak oroitzeko urtero Montevideon egiten den «Isiltasunaren martxa». Pablo PORCIUNCULA / AFP

**Diktadura garaiko hilketak, torturak, desagerrarazteak, sarraskiak... ikertu gabe gelditu ziren 1986. urtean Legebiltzarrak onartu zuen Iraungitze Legearengatik**

**Urtero, Brazo Orientaleko sarraskia gogoratzen dute Montevideon. Lauraren, Silviaren eta Dianaren argazkiak hil zituzten etxearen parean ikusgai daude**

ta egingo dugu! Indar Batera-tuak gara!», entzun zuten haien aita atea irekitzera zihoanean. Baina bortizki bultzatu zuten. Etxeko logelak banan-banan miatu ostean alde egin zuten, bila ari ziren etxebizitza ez zela ohartu zirenean.

Barriosen aitaren etxera iritsi ziren. Emaztearekin eta 17 eta 10 urteko seme-alabekin zegoen une horretan. «Hau ez ezazue hil, aita da», esan zuen Jose Gavazzok, kalekoz jantzita zegoela baina metraileta eskutan. Ordurako, apartamentu gehienak, hiru salbu, miatu zituzten militarrek. Ondoko atetako bizilagunak kamisoian eta galtzontziloetan aterarazi zituzten kalera gau erdian, palmondo baten azpira.

Kalean, Dorval Marquez polizia hil zuten motorrean etxerantz zihoanean. Barrios zela pentsatuta, gelditzeko agindua eman zioten baina ez zuen bete polizia entrenamendu batean gorra gelditu zelako. Odol hotzean hil egin zuten. Familiari, ordea, bere lana betetzen hil zela esan zioten. Hiru hilabete beranduago, Ricardo Morales alferrezak krimena aitortu zuen Epaitegi Militarrean.

Operatiboaren hurrengo egunean, Barriosek bizilagun bati deitu zion amarekin hitz egiteko eta horrela jakin zuen gertatutako guztia. Uruguaira ez itzultzeko eskatu zion amak. Elkarrekin hitz egin zuten azken aldian izan zen hura. 1974ko irailaren 17an atxilotu zuten Cordan, Argentinan. Barriosek bere burua borrokalarizat jo zuen, eta Genevako Konbentzioan ezarritako eskubideak errespetatzeko exijitu zuen. Kordobako Koordinazio Federalesko Zuzendaritzan egon zen preso urriaren 11ra arte, eta egun horretan La Plata hirira eramane zuten. Atxilotuta egon zen Lomas de

Zamorako kartzela klandestino batean eta gero Armadako 9. unitatean. 1975eko otsailaren 20an, Argentinako agintariek jakinarazi zuten Barriosek ihes egin zuela Kordobara zeraman polizia furgoitik. Ez zen gehiago haren berririk izan. 22 urte zituen.

#### «USOEN LAURA»

«Laura 1972ko uztailaren 31n atxilotu zuten. 1973ko maiatzaren 17an askatu zuten. Ez genekien non zegoen, baina gure senide militar bati esker jakin genuen 13. Batailoian zegoela. Patiora zein ordutan ateratzen zen jakitea lortu genuen. Batailoia kanpoaldera joaten ginen, prismatikoe-kin. Behin, harrapatu gintuzten. Gero ikasi genuen. Prismatikoak zuhaitzen sustraien artean ezkutatuta uzten genituen. Etxean usoak genituen, Batailoira eramaten genituen eta arreba patiora ateratzen zen bakoitzean, lau haizetara askatzen genituen kuartelaren gainetik hegan egiten zezaten. Askatasunaren sinboloa ziren. ‘Usoen Laura’ deitzen genion eta hitz horiekin kanta bat egin zioten», azaldu zuen Daniel Raggiok, Lauraren anaiak, 2016an kale-ratu zuen idatzi batean.

«Atxilotu zutenean, torturatu eta bortxatu egin zuten. Sekula ez nuen kontatu bortxatu zutenik, baina haiek lotsatu beharko lirakeke, ez gu. 1972ko ekainaren 11n 18 urte bete zituen. Adin nagusikoa izan arte itxoin zuten espetxeratzeko. Askatu zutenean, Dianarekin kuartelean aurkeztu behar zuen bi astean behin. Joaten zen bakoitzean, ukitu egiten zuten, iraindu egiten zuten. Bizitza ezinezkoa egiten zioten. Ezin zuten gehiago jasan, eta horregatik berriro ez aurkeztea erabaki zuten eta



klandestinitatera pasatu ziren. Eta Silviaren etxean babestu ziren. Alde guztietatik tirokatu zituzten. Arrebaren ileak kolore gorria zuela ikusi nuen. Hasieran tindatuta zuela pentsatu nuen, ezkutuan hobeto mugitzeko, baina odola zen. Lauraren gaubeila hilkutxa zabalik egin ahal izan genuen, Silviarena eta Dianarena ez zen posible izan. Etortzen zirenak mehatxatu egiten zituzten militarrek».

#### IRAUNGITZE LEGEA

Hiru nesken senideek lehenengo salaketa 1985eko maiatzaren 20an aurkeztu zuten, baina diktadura garaiko hilketak, torturak, desagerrarazteak, sarraskiak... ikertu gabe gelditu zituen 1986. urtean Legebiltzarrak onartu zuen Iraungitze Legearengatik. Horretan oinarrituta, epaileak salaketa artxibatu zuen. 1989an egin zen galdeketan, herritarren gehiengoak legearen eta amnistiaren alde bozkatu zuen, %55,9k. %41,3k berriz barkamena indargabetzea eta diktadura garaiko krimenak epaitzea eskatu zuen.

Baina, 2004an, Tabare Vazquezek presidentetzarako hauteskundeak irabazi zituen Fronte Zabala koalizioarekin. Iraungitze Legearen beraren arabera, Gobernuak eskumena zuen auzi batzuk araudi horretatik kanpo uzteko. Horretaz baliatuta, Vazquezek diktadurako zenbait buruzagi auzipetuak izatea lortu zuen. Iraungitze Legetik atera zuen lehenengo auzia Silvia Reyesen senarrarena izan zen, Washington Barriosena.

Era berean, Antropologia Forrentserako Ikerketa Taldearen sorrera sustatu zuen. Eredu militarretan lurperatu zituzten lehenengo atxilotu-desagertuak identifikatzea lortu

zuen. 2009ko urriaren 19an, Auzitegi Gorenak Iraungitze Legea Konstituzioaren kontrakoa zela adierazi zuen aho batez. Dena den, epaia Nibia Sabalsagaray Literatura irakaslearen eta ekintzaile komunistaren, atxiloketa, tortura eta hilketaren auzian soilik aplikatu zuten.

Gorenak epai historiko hori eman eta soilik 6 egunetara, urriaren 25ean, plebiszitu batean, herritarrek berriro ontzat eman zuten Iraungitze Legea. Amnistia Legearen aurkakoei 1989an baino babes gehiago lortu zuten, %48, baina ez zen nahikoa izan.

2021eko otsailean, erretiroan zeuden hiru militarren auzipetzea eskatu zuten sarraski honengatik. Juan Rebollo, Jose Gavazzo –2021eko ekainaren 26an hil zen– eta Eduardo Klastornickek deklaratu zuten

### 2021eko otsailean, erretiroan zeuden hiru militarren auzipetzea eskatu zuten sarraski honengatik. Militarrek argudiatu zuten neskek hasi zutela tiroketa

«Etxean armak zeudela esan zuten. Garai horretan militarrek nahi zutena esan zezaketen. Nork jarriko zuen zalantzan haien bertsioa?», dio Laura Raggioren anai batek

tiro egin zutela soilik etxe barrutik tiro egin zietenean. Rebollo operatiboaren burua zen eta besoan balaz zauritu zuten. Julio Cesar Gutierrez kapitaina hilik suertatu zen.

Gizateriaren aurkako krimenetan aditua den Ricardo Perciballe fiskalaren hitzetan, hiru militarren bertsioa ez da sinesgarria, lekukoek eta perituek esan zutenarekin bat ez datorrelako. «Nes-

ken etxera epaile baimenik gabe sartu ziren, gauez. Exekutatu egin zituzten, lurrean uzkurtuta zeudela. Zeuden lekutik eta gorputz jarrera horretan ez zuten erresistentziarik egin», ondorioztatu zuen Perciballek.

«Apirileko neskak» Uruguiko errepresioaren ikur bihurtu dira. Aitormen ofizialik egon ez bada ere, herriaren memorian gelditu dira.

Pasa den maiatzaren 20an, Montevideon diktaduraren garaiko errepresioa eta desagertuak gogoratzeko egindako mobilizazioa.  
Pablo PORCIUNCULA / AFP



# BOZKARIK EZ ITALIAN

## Hondartza eta futbola botoa ematea baino interesgarriagoak dira Italian

 POLITIKA / Alessandro Ruta

**I**talian ere, Estatu frantsesean bezala, botoa ematea gauza astuna dela irudikatu zen aurreko igandean. Oso txarto saldu den produktua, itxuraz. Temperatura altuek hondartzara edo oporretara joateko gonbita luzatzen zutela egia da. “Election day” deitu zutena “Abstention day” izan zen azkenik. Erreferendumetarako edo 971 alkateak berritzeko (tartean 26 hiri-burutan, 10 milioi biztanle) botoak oporretara joan ziren. Tartean, gainera, pasarte lotsagarri asko.

Ordezkariek zer egin ez dakitenean, herritarrei eskatu ohi diete laguntza. Erreferenduma da hori, Italiako bizitza maiz aldatu izan duen tresna. Lehenik, monarkia ala errepublika erabakitzeke, 1946ko ekainaren 2an. Geroztik, dibortzioa, abortua, Konstituzioaren aldaketaren bat, ur hornidura publikoa edo hauteskunde legea ezbaian izan dira erreferendum ezberdinetan.

Kanpainen hiru bide desberdin bultzatzen dituzte: baiezkoa, ezezkoa edo botorik ez ematearena, erreferendumak %51eko parte-hartzea behar duelako balekoa izateko.

Aurtengo gaia justizia izan da. Azken hiruzpalau hamarkadotan Italiako gizartean oso polemikoa izan den kontua, alegia. Gogoratu behar da justiziarekin lotutako kasuengatik gainbehera hasi dutela zenbait gobernu: esate baterako, Silvio Berlusconi lehengo kabinetea, 1994an, edo Romano Prodiarena, hamalau urte geroago.

### EPAIKETAK LUZATU

Jakina da epaiaketak askotan gehiegi luzatzen direla, eta hori bezain ezaguna da epaile as-

Italian ere hauteskundeak egon dira aurreko asteburuan: parte-hartzeak beherakada nabarmena izan zuen eta Palermoko herritarrek bertako taldearen partida ikustea nahiago izan zuten. Veronan, berriz, futbolari ohi bat, Damiano Tommasi, alkatea izateko hautagai nagusia izango da.

kok politikaren bidea hartu dutela, adibidez Antonio di Pietro, «Tangentopoli eskandaluaren» protagonistak.

Lega Nortek bultzatu ditu, batez ere, aurtengo erreferendumak, «justizia erreformatzeari» xede. Egia esan, Matteo Salvini Silvio Berlusconi babesa izan du, epaileekin hainbat arazo izan dituenarena, beraz.

Bost erreferendum izan dira, eta ez ziren batere argiak; datu adierazgarri gisa, horietako

baten galderak 7.314 karaktere zituen. Azkenean, herritarren %20k baino ez dute parte hartu bozketan.

Erreferendum horietako bat, adibidez, hirugarrena hain zuzen ere, erabat ulertezina zen: beti bezala, boto paperean galdera bat zetorren, baina kasu honetan, esan bezala, 7.314 karakterekoa. Nork izango zuen irakurtzeko eta ulertzen saiatzeko gogo? Ia inork ez, inertziaz erabakiko zen, bai ala ez.

Gainera, telebistan eta bestelako hedabideetan erreferendumei tarte gutxi eskaini zaie. Eguneroko batez bestekoa zenbatu dute: bi minutu baino ez. RAI telebista kate publikoko aurkezle batek zera iragarri zuen, bera hondartzara joango zela, ez hauteslekura. Eguna iritsita, “lau katu” hurbildu ziren boza ematera, %20. Erreferenduma ez da balekoa izan, jakina, eta inoizko parte-hartze txikiena izan du.

Bitartean, Matteo Salvini beste arazo bat zuen, Errusiara baimenik gabe joan ondoren; Lega Norteren barruan denak ez daude alderdiaren liderrarekin pozik.

Justiziari dagokionez, antzaren jokoan bezala, partida abiapuntura itzuli da: Legebiltzarrera, alegia.

### FORZA PALERMO

Momentu historiko bat gertatu da Palermon: eta ez, ez da alkate berriaren izendapena-

Matteo Salvini, bozkatzeko momentuan. Europa Press





gatik izan. Igande gauean Palermo futbol taldeak bigarren mailara igotzeko partida zuen, Paduaren aurka, eta hiri osoa prest zegoen Renzo Barbera estadiora joateko. Harmailetan 35.000 pertsona zeuden, rosaneroa animatzeko.

Txantxa dirudi, baina hala xe gertatu da: Palermoneko Gobernuari hauteskunde eguna aldatzeko eskatu zioten, futbol partida egun berean jokatzen zelako. Hartara, arduradunek Gobernuari bozketa eguna aldatzeko eskatu zioten, neurketa askoz garrantzitsuagoa zela eta. Erromatik erantzuna, jakina, ezezkoa izan zen, baina halakoxea izan zen egoera Siziliako hiriburuan.

Boto aztertzaileak falta ziren, batzuk hondartzara joan zirelako eta beste batzuk estadiora; ondorioz, hiriko leku askotan ezinezkoa izan zen botoa ematea arratsaldera arte.

Azkenik Palermok bere neurketa 1-0 irabazi zuen eta bigarren mailara igo zen. Tifosiek eta tifosi ez ziren beste herritar askok gau osoa igaro zuten kolean, baina oso boto gutxi eman zuten: bakarrik %41,89k parte hartu zuten.

Gauzak horrela, Roberto Lagalla mediku eskuindarra izango da Palermoko alkatea. Hauteskunde aurretik albiste bat argitaratu zen, bere emaztea mafia-kide garrantzitsu baten alaba zela jakinaraziz. «Nik ez dakit ezer», aipatu zuen Lagallak, Marcello Dell'Utri Forza Italia alderdiaren sortzailearen laguna denak.

**FUTBOLARI EZKERTIARRA**

Palermorekin batera, Genovan edo L'Aquilan ere eskuinak irabazi du. Aldiz, Paduan eta batez ere Veronan oso emaitza harrigarria egon zen: Julieta



Lerro hauen gainean, Silvio Berlusconi.  
Europa Press

eta Romeoren herrian normalean Lega Norte edo ultraeskuindarrak gailentzen dira, baina kasu honetan Alderdi Demokratikoak ustekabearen izen berezi bat atera zuen plazara: Damiano Tommasi futbolari ohia.

Veronakoa da Tommasi, eta Hellas Verona taldean aritu zen Erromara joan aurretik. Bizarduna, ile kizkurduna, ultrakatolikoa eta sei seme-alaba dauzkana. Damianok Espainiako Ligan ere jokatu zuen, Levante taldean, 2006tik 2008ra. Oso erdilari borrokala

zen, eta berdeguneak utzi ondoren futbolariaren ordezkari bilakatu da.

Tommasik alkate izateko bigarren txandan lehiatu behar du, bi aste barru: momentuz alde eskuindarraren zatiketa baliatzen jakin izan du, baina Lega Norte+Forza Italia+Fratelli d'Italia koalizioa askoz indartsuagoa da ezkerreko alternatiba baino.

Berriro ere, barne borroka lidentgoaren inguruan libratzen da: Silvio Berlusconi, Matteo Salvini eta Giorgia Meloniren artean, hain zuzen ere. Azken

hau, bide batez, astelehenean Andaluzian egon zen, Voxeko Macarena Olona hautagaiaren alde egiten.

Gauzak horrela, hauteskunde orokorrak bihar izango balira, eta ez datorren neguan, legebiltzar berrian koalizio eskuindarrak erraz irabaziko luke.

Alderdi Demokratikoa ez dabil batere eroso: Bost Izar Mugimenduarekiko «ezkontzak» etekin gutxi ekarri du, batez ere Beppe Grilloren alderdiarentzat.

Orain dela hamar urte, esaterako, Parman Bost Izarrek alkatetzarako hauteskundeak irabazi zituen, Federico Pizzarottirekin (ustelkeriaren aurka ikur bihurtu zen teknikari informatikoa). Gaur egun poliki-poliki desagertzen ari da, bai Emiliako hirian eta bai beste hainbat lekutan.

Agian hemendik dator parte-hartzearen beherakada nabarmenaren gako nagusia.

**Bost erreferendumak ez ziren batere argiak; datu adierazgarri gisa, horietako baten galderak 7.314 karaktere zituen. Herritarren %20k baino ez zuten parte hartu**

**Txantxa dirudi, baina halaxe gertatu da: Palermoneko Gobernuari bozketa eguna aldatzeko eskatu zioten, futbol partida askoz garrantzitsuagoa izateko zutelako**



**Oier Gorosabel - @Txikillana**  
Fisioterapeuta

## Batezbestekora erregresioa

**A**urreko baten azaldu genuen gure muskulu-eskeleto sistemaren arazoetatik asko berez sendatu ohi direla; eta prozesu horietan, osagileok laguntzaile hutsak izaten gara. Gaur, horrekin erlazionatutako kuriositate edo maltzurkeria bat azalduko dizuet: batezbestekora erregresioa. Francis Galton ikerlariak XIX. mendean deskribatutako fenomeno da, egoera mingarrien ebolutziora ekarri gero, estatistiken ohiko marrazkiarekin erakuts dezakeguna: koordenatu kartesiarrak, non x ardatzak denbora irudikatzen duen, eta y ardatzak minaren intentsitatea. Horretara, marrak kanpai forma hartzen duela ikusiko dugu: hasieran behe-behetik hasita (minik ez dugunean), gero aldapan gora (mina agertzen doanean), tontor batean amaitzen dena (minaren punturik gorena), eta gero aldapan behera doana (mina hobetzen hasten denean). Kanpai forma hau beti agertzen da: batzuetan altuera handiagoarekin, bestetan txikiagoarekin, agian aldaera batzuekin, baina oro har errepikatzen den txantiloia dela esan dezakegu. Osagileon funtzioa bilakaera horretan eragitea da: kasu gutxi batzuetan kanpai hori zapaltzea lortuko dugu (kanpaiarena baino, plater itxura handiagoa emanez), baina gehienetan kanpai horren punta jaistearekin konformatu behar ko gara: alegia, minaren puntu gorena ez dadila hain goian egon. Eta batzuetan, joan den hilean aurkeztu genuen Ezekielen kasuan legez, kanpaiaren bilakaerari begiratzea baino ez zaigu geldituko, tontoak bezala.

**Azken kasu honetan -eta orain dator maltzurkeria-, konturatuko zaretenez, ez du inporta gu fisiotera-**

**peutak garen, medikuak, lizentziatuak, katedratikoak, igeltseroak, poetak edo ke-saltzaileak.** Berdin du zer egiten dugun, pazientearen minak betiko kurba jarraituko duela badakigu: aldapan gora, tontorra, aldapan behera. Horretara: paziente leheneango fasean etortzen bada (gorakadan), badakigu egiten dugun tratamendua egiten dugula, gero eta min gehiago izango duela. Eta bigarren fasean etortzen bada ("tontorrean" oso denbora gutxi pasatzen baita), badakigu egiten dugun tratamendua egiten dugula, gero eta min gutxiago izango duela. Bistan denez, denborarekin eta esperientziarekin, osagileok paziente zehazki zein fasetan dagoen bereizteko zeinuak ikasten ditugu; eta hori interesgarria izaten da, tratamendua modu egokiagoan planteatzen laguntzen digulako. Halere, askotan egoera xelebreak gertatzen dira. Esate baterako: normalean pazienteak lehen fasean (aldapan gora) etortzen dira guregana; batzuek ez dute pazientziarik tratamenduarekin jarraitzeko -gaur egunean dena eta orain

nahi dugu- eta nahikoa hobetzen ez direla iritzita, beste soluzio batzuen bila hasten dira. Horrelakoetan, ez da arraroa izaten beste tratamendu hori eta beheranzko aldapa, biak batera hastea. Kasu horietan, behin baino gehiagotan, paziente erabat sinetsirik gelditu izan zaigu bere hobekuntza tratamendu berriaren eraginez izan dela. Gehiago esango dut: inoiz tratamendu berri hori pitokeria hutsa izan dela jakin dugu, baina halere paziente oso pozik geratu dela «hark bai asmatu duelako, fisioterapeuta inutil haren aldean». Bueno, horrelakoak gertatzen dira; eta garrantzitsuenazken zatia da: paziente pozik geratu dela, eta arazoa konpondu zaiola. Gehienetan, ez du merezi azalpen sakonetan hastea; horiek zuek bezalako irakurle prestu eta adimendunendako erreserbatzen ditugu. Ziur inoiz baliagarriak gertatuko zaizkizuelako. Barrena, hurrengo bizkarreko mina etortzen zaizuenean, egoerari lasaigo aurre egin diezaiozuen! •

[www.abante.eus](http://www.abante.eus)



Osagileok paziente zehazki zein fasetan dagoen bereizteko zeinuak ikasten ditugu. RONSTICK | GETTY



{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

# Adam Ikatz kalean

**D**onostiako Ikatz kalean irudikatu zen tal-  
karen atzean bi kontu bereziki argigarri  
egiten zaizkit. Bata horizontala da, geo-  
grafia politikoarekin du zerikusia. Bestea  
bertikala, adinari lotua. Baga; ezker aber-  
tzalearen barruan askok liskar hori zati-  
keta gisa hartzen duten bitartean, Mugimendu Sozia-  
lista deiturikoan askorentzat ez dago lotura apurtu  
izanaren sentsaziorik, eta are gutxiago dolurik. Biga;  
gurasoek seme-alabak nostalgikotzat jotzen dituzte, zi-  
nez deigarria, nostalgia helduen ajea izan beharko lu-  
keelako.

Bigarren paradoxatik hasita; zein da bi sektoreen  
arteko aldea? Ez dago adinean, baina bai Euskal He-  
rrian gertatutakoaren kontzientzia. Herri honen as-  
kapen nazional eta sozialaren aldeko borroka ez da  
hutsetik abiatzen, lotura bat dago mende hasierako  
langile borroken, 1936ko guda antifaxistaren, 60ko  
hamarkadako berpizte politiko eta kulturalaren, bo-  
rroka armatuaren eta egun  
pazientzia estrategikoa ar-  
datz duen ildoaren artean.  
Askotan GKS eta ondoko  
egiturei egozten zaien bizi-  
izan-ez-denaren-nostalgia  
baino gehiago, Mugimendu  
Sozialistan adamismoa da  
gakoa, hau da, «jarduera  
bat abiatzean aurrekoa  
kontuan hartu gabe haste-  
ko joera».

Ez da harritzekoa, berez  
gizarte adamista batean bizi garelako, memoria gutxi-  
koa eta perspektiba eskasekoa, orainaldia baino balo-  
ratzen ez duena. Denok bat etorriko gara esatean  
egungo gazteek aurrean dutena «no future» bat de-  
la –aurreko belaunaldiko Sex Pistols-ek jada salatu be-  
zala–, baina beren azterketan iraganik ere ez da. ETA  
historiaurrea da haientzat, jakina, baina ziklo aldake-  
ta ere bai, bere sakontasun osoarekin, eta azken hau  
ere ulergarritzat hartu beharko, ordutik hamarkada  
bat, askoren bizitza erdia, igaro baita.

Beste paradoxa are arinagoa da. «Quieres identi-  
ficarme, tienes un problema», abesten zuen La Polla Re-  
cordsek duela hiru hamarkada eta abesten dute gaur-

ko gazteek ere. Erakunde desberdinak egotea ez litza-  
teke larria izan beharko, jada pilatutako letra-zopa  
guztiori nahiko astuna egin arren, helburuak berdinak  
edo antzekoak badira. Bestalde, ez da albiste txarra  
XXI. honetan gazteen birpolitizazioaren loratze bat  
gertatzea. Argiago esateko: Ernaiko gazteak Ernaiko ez  
balira GKSkoak izango lirateke akaso, baina GKSkoak  
GKS-ko ez balira segur aski ez lirateke mobilizatuta  
egongo.

Beste garai batean ez, baina ETaren osteko agerto-  
kian ohituak gara «ezberdinen» arteko gutxieneko  
kontsentsuak eta sinergiak lantzen. Batzuen ildo iraul-  
tzaile/utopikoak eta besteen jardun eraldatzaile/prag-  
matikoak ez lukete elkarren aurkakoak izan beharko,  
ortzi muga bererantz egiten badute. Hortik aurrera,  
denborak arrazoiak eman eta kenduko dizkio norbera-  
ren jardunari, nola ez. Oraingo ezker abertzaleak bere  
lorpenen eta gabezien balantzea aurkez diezaioke bere  
herriari; MSrena egiteko dago (edo ez egiteko).

Maiz egozten zaien bizi-izan-ez-denaren-  
nostalgia baino gehiago, MSn adamismoa  
da gakoa, «jarduera abiatzean aurrekoa  
kontuan hartu gabe haste-ko joera» alegia

Donostiako talka negargarria errepika ez dadin, la-  
saitasun eta elkarrekiko kontzientzia hartze dosi ba-  
tzuk beharko dira. MSk errespetuz jokatu beharko  
du; ez bereziki ezker abertzalearekiko, batez ere herri  
honen historiarekiko baizik. Eta ezker abertzaleak  
traizio sentimenduak alboratu eta Arnaldo Otegi  
Podemosi Anoetan luzatu zion interpelazioa berrera-  
bil lezake: «Zuen estrategiak funtzionatzen ez badu,  
geure prozesu eratzaileetara etorri, posible baita». Orduan ere beste Adam batek zerua asaltatu behar  
zuen, baina bidezidorretatik gutxitan heldu da tonto-  
rrera; ohikoagoa da indarrak xahutu eta noraezean  
buelatzea. •

# UEU-K 50 URTE

## Euskal Unibertsitatearen katedrala eskaileraz eskailera eraikitzen

 **JAKINTZA** / Mainer Iantzi Goienetxe

**5**0. urteurrenerako hiru xede jarri ditu UEUk: ospatzea; hobeki komunikatzea jendartea hobeki ohartzeko egiten duten guztiaz, alian-tzak, babesa eta baliabideak lortzea; eta bazkideak mimatu, omendu, saritu eta berriak lortzea. Hor sartzen da bazkidetze kanpaina.

Ekitaldien artean, UEU perfumea aurkeztuko dute, Kimika sailaren ekimenez, Euskal Herriaren usaina bilatzen duena. Literatura sailak ipuin bilduma bat argitaratuko du, “Jakín” aldizkariko ale berezi bat prestatuko dute euskal unibertsitateaz, UEU festak ere egin dituzte tokian tokiko ikerlari gazteekin...

Gainera, 22 jardunaldi-topaketa prestatu dituzte udarako. Adibidez, uztailaren 1ean adimen artifiziala landuko dute Donostian, bi ikuspegitik: filosofoena eta informatikariena. Bakoitzak bere aldetik saio bana egin eta gero elkartu egingen dira.

UEUren ezaugarri garrantzitsu bat izan da hori, jendartean dauden gaiak jorratzea unibertsitateko forotik, Ane Sarasua idazkari nagusiak eta Kepa Sarasola zuzendariak azpimarratu dutenez.

Beste kasu bat da lurralde antolaketaren jardunaldia, Kontseiluarekin batera egingen dutena. Demagun Baztannen etxebizitza pila bat eraiki nahi dituztela, nola eraginen du euskararen erabileran? Arkitektura, zuzenbidea, soziologia... Hainbat alorretako adituek dute hor zeresana.

Elhuyarrek eta Elkarrek ere 50 urte beteko dituzte eta zientziari buruz ariko dira batekin eta euskal curriculu-

UEU atxikimendu handia sortzen duen proiektua da, hagitx sare leiala, egonkorra du, bihotza mugitzen duena, eta mende erdi betetzen duen honetan izaten ari den feedbacka ederra izaten ari da, ilusio handia sortzen ari da. Jendartean eragiteko giro ona izatea garrantzitsua dela badakite eta karta onak dauzkate.



maz bertzearekin. «Oso prezio sinbolikoa jarri dugu, 10 eurokoa, jendea erakartzea nahi dugulako. Proiektua oso irekia da, oinarri sozial handia dauka eta nahi duguna da partaidetza sustatzea.

«Toki askotan egingo ditugu jardunaldiak. Iruñean hasiko gara ekainaren 27an, Donostian eta Bilbon ere egongo gara, Eibarren ibiliko gara, Usurbilen, Baionan...».

“ElkarEkin” hartu dute lelo-tzat, Korrika eta Euskaraldiaren ildo beretik. Azalpena hagitx erraza da Sarasolarentzat: «Elkarren beharra daukagu». ElkarEkin traola gutxienez orain dela hiru urtetik hasi ziren erabiltzen. Urteurrenaren plangintza ordutik diseinatzen ari dira, galdera baten bueltan: «Zer-nolako etorkizuneko unibertsitatea irudikatzen dugu?».

### SORRERA

Amaieratik hasi gara, baina Udako Euskal Unibertsitatea noiz eta nola jaio zen oroitzea komeni da. 1973an, Ipar Euskal Herrian egin zen lehenengo udako ikastaroa. Unibertsitatean euskaraz ez zegoen deus ere. EHU ere sortu gabe zegoen.

«Bultzada sozial oso handia zegoen; bost urte lehenago Euskaltzaindiak batua definitu zuen. Horrekin jakintza arlo guztiak jantzi behar ziren, hala nola unibertsitatea. Baionako kultur asteak izan ziren 1970-1972an, bertan hasi ziren biltzen euskal pentsalariak, katalanei jarraituz. Donibane Lohizunen izan zen guztiaren hasiera».

Euskal unibertsitatea eraikitzea zuten aldarri. Ikastolak ja-da sortuta zeuden. «Euskara berreskuratu behar zen eta hortik tiratzeko oso inportantea da unibertsitatea. Urte horretako ikastaroetan jolasean hasi ziren, fisikako oinarritzko kontzeptu



batzuk euskaraz emanez; zergatik ez? Denek sentitzen zuten zerbait eraikitzen ari zirela, posible zela», kontatu du Sarasolak.

Erantsi duenez, hori bezain inportantea da pertsonen jakintza azaltzen ikastea. Eta hori barra-barra egin zuen UEUK hurrengo 25 urteetan.

**IRUÑEKO OASIA**

Hasieran lau urtez Lapurdin elkartu ziren eta 1977an Iruñera egin zuten salto. «Hor daude 20 urte non 15 egunez euskararentzat oasi bat sortzen zen. Materiala prestatzen zen urtean hor aurkezteko. Ez ziren ekintza akademikoak soilik; eztabaidak, dantza, jolasa, magia zen. Zortzi-bederatzi euskara diferente entzuten ziren. Sail guztiek konpartitzen genituen bazkariak. Eta mahaian Txillardegia, Amuriza edo Lopategirekin tokatzen ahal zitzaigun. Gaztetxo bat hara zihoan ikastera eta hortik zurruputzen zuen».

Horizontaltasuna. «Oraindik hori gara. Hori izan nahi dugula aldarrikatzen dugu».

**KASIK 500 LIBURU**

Urtero hamar liburu atera dituzte, orotara ia 500 obra, kalitatezkoak, unibertsitate mailakoak. Hala, materiala prestatuz eta jendea aurkezten trebatuz, 20 urtean lortu zen EHUk eta Lakuak baimena eman eta plazak ateratzea, eta mendea bukatzerako ia karrera guztiak egin zitezkeen euskaraz.

Hasierako urte horietan, Iruñera pasatu eta gutxira sortu zen EHU, gutxira NUP, eta euskararen normalizazioan eta euskara planetan ibilitako anitz UEUtik pasatutako gaztetxoak izan ziren.

«Harro gaude. Orain 50 urte utopia zen. Jendea lanean hasen zen oso giro ona zegoelako,



Lehenbiziko orrialdean, Donostiako UEU Festako partaide bat. Lerro hauen gainean, Ane Sarasua eta Kepa Sarasola, UEUko idazkari nagusia eta zuzendaria, hurrenez hurren.  
Gorka RUBIO - Maialen ANDRES / FOKU

oso prozesu gorakorra zen. Carlos Santamariak esaten zuen bi gauza diferente daudela: Euskal Herriko Unibertsitatea eta euskara ardatz duen Euskal Unibertsitatea, euskal munduko arazotak landuko dituen. Eta hori ez dugu lortu. Esaten digute utopia dela, ez dagoela jenderik. Baina gu beti mailak igotzen goaz, gauza berriak egiten, etengabe aldarrikatzen hori egin behar dela», nabarmendu du zuzendariak.

Eta Oskorriren kanta bat abesten hasi da: «Arrainak ura

eta euskarak bere unibertsitatea...». Euskal Herri osoa hartuko duena, herrikoia, gure herriaren nortasun eta ezaugarriak aintzat hartuko dituen, euskal gizartearen premiei erantzungo diena... Elkarlana sustatzen dute unibertsitate guztiekin normalizazio horretan eragiteko.

UEUren ikastaroen irekiera Biarritzen egin da berriki eta bertan, Jose Ramon Etxebarriak katedral bat eraikitzearekin konparatu zuen euskal unibertsitatea sortzea. Artisau onak behar dituzu, eta giro ona oso inportantea da.

**GRADUONDOKOAK**

Ia ikasketa guztiak euskaraz ematen zirenean, Iruñeko Larraonako ereduak aldatu beharrean aurkitu ziren. Ordura arte euskaraz zerbait egiteko joaten ziren, erdaraz ikasten zutelako. Baina jada ez zuten behar hori. Krisi bat izan zen eta UEUK

apustua egin zuen graduondoko ikastaroak, masterrak antolatzeko.

Euskaraz ikasi duten horiei guztiei euskarri bat ematea zen asmoa, gero euskaraz lan egiteko. Jardunaldiak antolatu zituzten: informatikariena, natur zientzialariena, ekonomialariena... «Zer proiektu egin ditzakegu elkarrekin?», galdetu zuten.

«1977tik 2000ra Larraonako garaiak izan ziren: lo egin, afaldu, jaia zegoen... Baina al daketa gertatu zen: jendeak nahiago zuen ikasi eta etxera itzuli», adierazi du Sarasuak.

Bi mugarri izan ziren 2000n: «Bilboko egoitza soziala erosi genuen, eta Eibarko Udalak Markeskoa betetzea eskatu zigen. XVI. mendeko ondare kualifikatua da, 900 metro karratu, lau solairu. Bizitza eman genion, eta horrek ekarri zuen guretzat espazio bat, Bilbokoarekin batera. Hala, katedral txiki

**Euskara eta unibertsitatea elkarrengana hurbiltzen ditu UEUK. Irabazi asmorik gabeko erakundea da eta onura publikoko aitormena ere badauka**

**Oinarri sozialak definitzen du. «1.400 bazkideen ordezkari gara. Gure DNA da, erantzukizun handia. Hilero bidaltzen diegu mezu bat zer gauza egingo ditugun esateko»**



bat eraikitzen hasi ginen, eta gure jarduera akademikoa Euskal Herri osora zabaltzen».

Udako ikastaroetatik harago, urteko eskaintza bat diseinatzeari ekin zioten. Bizialdi osoko ikaskuntzara, etengabeko prestakuntzara egin zuten salto, presentzialtasunetik onlinera, graduondokoak euskaraz emanaz. Hemezortzi graduondoko antolatu dituzte EHUrekin. Babesletza instituzionala sentitzen hasi ziren.

**IKERKETA**

2013-2015ean ikerketan eragiteko erronka hartu zuten. «Unibertsitatean sartzen diren irakasle berriak ikertzaileak ere badira, doktoreak. Gure lehen helburua komunitatea sortzea denez, jolasa abiatu genuen 2013an: 'Kontatu zure tesia sei txiotan'. Seigarren edizioa dugu aurten. Harrigarria da zer jende daukagun», baloratu du zuzen-dariak.

Donostiako UEU Festako hitzaldi bat eta, ondoren, umorerako tartea Mirari Martiarena eta Idoia Torregararekin.  
Gorka RUBIO / FOKU

2015ean “Ikergazte” nazioarteko kongresu zientifikoa abiatu zuten, bost jakintza alor elkartuz. «Bi-hiru eguneko kongresua da, Larraonako izpiritua berreskuratzen duena, bertan lo... Apustu oso handia izan zen ekonomikoki ere. Bertigoarekin hasi ginen, eta sekulako arrakasta izan zen: 200 ikertzailetik gora eta 140 komunikazio aurkezpen. Kalitatiboki ere oso garrantzitsua izan da, unibertsitate eta ikerketa talde ezberdinetatik datoz. Unibertsitate guztiekin hi-

tzarmena lortu genuen», kontatu du idazkari nagusiak. Durangon izan zen eta bi urtera Iruñera joan ziren. Han ere arrakasta, Nafarroako Gobernuak ere babestu zuen. Bi urtera Baionan egin zuten eta laugarrena Gasteizen. «Beti egon da goi mailako jakintza, giro ona... Indar handia ematen duen ekimena da». 2023an Donostian izanen da.

**Goi**

2019an Goi Mailako Online Institutua (Goi) sortu zuten.

**Mahaian Txillardegi, Amuriza edo Lopategirekin tokatzen ahal zitzaion gaztetxo bati. Horizontaltasuna. «Oraindik hori gara eta hori izan nahi dugula aldarrikatzen dugu»**

**Materiala prestatuz eta jendea aurkezten trebatuz, 20 urtean lortu zen plazak ateratzea. Mendea bukatzerako ia karrera guztiak egin zitezkeen euskaraz**


«2002tik ari gara aldarrikatzen graduak online euskaraz ikasteko aukera izan behar dugula. UOCen inbidia ere izan dugu. Hori ere egin dezakegula uste dugu. Gainera, estrategikoa da. European bost ikasletik batek etxetik ikasten du. Hemen ez. Aukera bat galtzen ari gara. Lanean daudenak, familia kargak dituztenak, lan bat dutenak baina hobetu nahi dutenak... Eskaria badago euskaraz, baina administrazioak ez du ikusten; guk bai: euskaraz funtzionatuko duen gune bat. EHU bera ere ez dabil euskaraz, ibiltzeko ardatza ez da euskara», azaldu du Sarasolak.

Goi EHUKo ikastegi atxiki bihurtu zen. Irakaskuntza masterra ematen dute. EHUK Donostiako fakultatean eskaintzen du eta Goik ematen du master horren online modalitatea, hiru espezialitatetan: natur zientzia eta matematika, giza eta gizarte zientziak eta hizkuntza eta lite-





Ane Sarasua eta Kepa  
Sarasola UEUko kideak,  
GAUR8rekin solasean.  
Maialen ANDRES / FOKU



ratura. 40-44 plaza eskaintzen dituzte 120-132 ikaslerekin. «Gure eredu pedagogiko propioa garatu dugu, teknologia egon behar da metodologia eta pedagogiaren zerbitzura. Ikaslea erdigunean dago, ez dago bakarririk, guk laguntzen dugu».

2020ko irailean jarri zuten martxan eta orain bigarren edizioa bukatzen ari dira. Hirugarren edizioiko izen-ematea amaitu berri da. «120 plaza betetzeko 500 eskaeratik gora jasotugu. Behar bat badago eta tamalez jende askok bukatzen du online gaztelaniaz kanpoko unibertsitateetan. Gaztelaniaz jasotzen dute prestakuntza hemen belaunaldi berrien irakasle izateko euskaraz», ohartarazi dute.

«Oso emaitza politekin gabiltza, jendea oso pozik dago. Gure helburua da graduak ere online ematea. 2021-22 ikasturte honetan bigarren titulua hasi dugu: humanitate digita-

len inguruko aditu titulua. Gure asmoa da euskaraz eta online titulazio gehiago ematea. Hemendik hiru urtera beste bi gutxienez edukitzea».

«Euskal Unibertsitatea, euskaraz ardatz izango duena, nazionala eta herrikoia edukitzea, graduak euskaraz ere emanez, hori egin daitekeela uste dugu. Argi dugu irakasleak prestatzen ari garela konpetentzia digitalean baina Euskal Herriko nortasun eta ezaugarriekin. Hor ereiten ari gara».

#### BAZKIDEAK OINARRI

1.400 bazkide dira. Horiek dira UEUren oinarria. 50 euro dira urtean, ikasleentzat 30. Bazkideak Euskal Unibertsitatea sortzeko proiektuaren partaide dira. Askok ikastaroak egin dituzte, eurak izan dira irakasle ikasle gisa hasita.

«Talde profesionala 25 pertsonak osatu arren, badago talde eragile bat, zuzendari-

tza, militantea eta soziala dena, ibilbide luzekoa unibertsitatean, eta gero sailak daude, jakintza arloka antolatzen diren 27 sail», esplikatu du Ane Sarasuak.

«Ez duzu zertan sail batean apuntatu, baina asko apuntatzen dira filosofian edo ekonomian, eta horren inguruko informazioa jasotzen dute, ekintzetan integratzen dira, antolakuntzan. Denak ez dira kide aktiboak baina badaude oso aktiboak: ikastaro bat antolatu dute, irakasle izan dira, liburu bat

argitaratu dute gurekin, tesia euskaraz egin eta 'Ikergazte'-ra doaz...».

Edozein izan daiteke bazkide, herrikoia baita UEU, ez da goi mailako ikasketarik izan beharrik.

«Soldatapekoak garenontzat eta zuzendaritza osatzen dugunontzat oso garrantzitsuak dira. Oinarri soziala da definitzen gaituena, 1.400 pertsona horien ordezkari edo aurpegia gara. Gure DNA da, erantzukizun handia da. Hilero bidaltzen diegu mezu bat zer gauza egingo ditugun esateko».

Inguma datu basea hagitx inportantea da; sistematikoki jasotzen dute bertan euskaraz unibertsitate mailan ekoizten den guztia, idatziz zein ahoz. «Euskal komunitate zientifikoaren datu basea da, eta guk elikatzen dugu. 11.000 pertsona daukagu. Oso garbi daukagu gure zeregin bat dela sare hori kohe-sionatzea, trinkotzea».

**«Bi gauza diferente dira Euskal Herriko Unibertsitatea eta euskara ardatz duen Euskal Unibertsitatea. Esaten digute utopia dela, baina mailak igotzen goaz»**

**Data borobila aprobetxatu nahi dute gai estrategikoak lantzeko elkarlanaren bitartez. «Oso garbi geneukan hausnarketarako gune izan nahi genuela»**

# SAREGILEAK, APALTZEN ARI DEN OFIZIO BATEN ZULOAK ESKUZ JOSTEN

Amagoia Mujika Telleria

Itsasontzi bat arrantzara abiatzen den bitartean, saregileak beharko dira, sareak konpontzeko eskuak behar baitira. Saregileena apaltzen ari den ofizioa da. Duela gutxi lortu dute arrantza sektoreko gizonezkoek aspalditik zeukaten baldintza: erretiro adina lau urte aurreratzea.

**H**ondarribia. Itsasontziak kaian geldirik, itsaso barean pausatuta. Arrantzalaren bat gora eta behe-  
ra, bazterrak atontzen. Kaiaren alde banatan dauden nabeetan, emakume kuadrilla lanean, arrantzarako sareak konpontzen. Bezperan abisatu zieten. Itsasotik bueltan zetorren ontziko patroiak deitu zien, sarea zekartela konpontzeko premian. Horrela izaten da beti, bezpera arte ez dute jakiten hurrengo egunean lana izango duten edo ez. Sarean

Beheko irudian, Maitane Etxebarria Hondarribiko saregilea. 37 urte ditu eta bera da Euskal Herriko saregile gazteena. Alboko orrialdean, Ami Thior. 2005. urtean etorri zen Senegaldik Hondarribira eta ordutik ari da saregile.  
Jon URBE | FOKU

markatuta ekartzen dituzte konpondu beharrekoak, tarratadak dauden tokian seinaleztapen-zinta puska bat korapilatuta. Hori arrantzaleen lana izaten da.

Hondarribian gaur egun hamabost bat saregile daude. Maitane Etxebarriak 37 urte dauzka eta bera da gazteena. Tira, bera da Euskal Herriko saregileetan gazteena. Bost urte daramatza sareak konpontzen eta dagoeneko ikusi ditu lau saregile erretiroa hartzen, bosgarrena bidean. Bere atzetik ez du ikusi berririk sartzen lantaldera.

«Langabezian geratu nintzen. Izeba saregilea da eta probatzera animatu nintzen. Azken bost urte hauetan lau saregile ikusi ditut erretiroa hartzen eta bosgarrena bidean da. Baina nire atzetik ez da beste inor sartu. Jendea ez da animatzen, ez dakit lana gogorra dela uste duten edo...». Eta, lana gogorra

al da? «Atsegin-atsegina ez da, baina oso polita da. Xarma berezia dauka. Egunero egiteko desberdina daukazu, ez dakizu zer topatuko duzun, nolako zuloa, nola konpondu beharra... Eskuekin lan egitea ederra da, itsasoaren usaina, beti jendea bueltaka». Galtzen ari den eta eskuekin egin behar den ofizio baten xarma aipatzen du behin eta berriz Etxebarriak. Saiatu omen dira makinak ekartzen sareak konpontzeko, hori ere probatu omen dute, baina ez dute balio. Oraindik ere eskuz egin beharreko lana.

Lanean ari diren guztiak emakumezkoak dira. Hori da ohikoena, nahiz eta beste portu batzuetan aritzen omen den gizonen bat sareak josten. Salbuespena da.

«Saregilea izateko josten jakin behar da, besterik ez. Baina beti prest egon behar da, telefonoari begira. Normalean itsasontziko patroiak gure arduradunari deitzen dio sarea konpondu beharra dutela esanez. Nolako zuloa daukaten azaltzen dio, noiz iritsiko diren portura eta noizko behar duten konponduta. Arduradunak abisua pasatzen digu eta hurrengo egunean, lanera. Gaur, adibidez, lanera etorri gara goizean eta jakin dugu bihar ere etorri behar dugula, beste itsasontzi bat datorrela sarea konpontzera».

Berez lan gehien martxotik uda bitartean izaten da. Aurten ez dute lan askorik izan, arrantzaleak batez ere Laredo (Kantabria) aldean ibili direlako. Arraina non, arrantzaleak han. «Arrantzaleak euskal kostaldetik urrunxeago dabiltzanean, sareak konpontzeko beharra badaukate beraiek moldatzen dira ahal moduan. Batzuetan bidali izan dituzte sareak kamioian hona, Hondarribira, guk konpontzeko. Baina hori ere garestia ateratzen da. Behin edo behin saregileak joan izan dira Laredoko portura sareak konpontzera. Autoan joan saregile pare bat, handiena konpondu eta buelta Hondarribira. Horrelakoak gertatzen dira», azaldu du Etxebarriak.





**Gero eta saregile gutxiago daude, baina itsasontziren bat itsasora abiatzen den bitartean, beharrezkoak izango dira. «Arrantzaleak dauden bitartean, saregileak beharko dira», esan du Maitane Etxebarriak**

Gero eta saregile gutxiago daude, baina itsasontziren bat itsasora abiatzen den bitartean, beharrezkoak izango dira. «Arrantzaleak dauden bitartean, saregileak beharko dira. Arrantzarako sareak erabiltzen diren bitartean, saregileak beharko dira».

Saregile gehienek etxetik dakarte lanbidearekiko gertutasuna. Askok, haiek esaten duten moduan, kresala daukate zainetan. «Nire kasuan osaba eta lehengusuak arrantzaleak dira eta izeba, saregilea. Ni ere horregatik hasi nintzen, ezagutzen nuelako lanbidea», esan du Etxebarriak. «Saregile gehienok badugu norbait itsasoan. Baina lotura hori lehen estuagoa zen. Orain badira itsasoarekin loturarik ez duten saregileak ere».

#### ERRETIRATZEKO ADINA

Duela aste batzuk, askotan ez bezala, albistegietan saregileez hitz egin da. Espainiako Gobernuak onartu asmo

**Gobernuak onartu asmo duen arrantza jasangarriaren inguruko legeak aurrera egiten badu, jubilazio adin ofiziala baino lau urte lehenago hartu ahal izango dute erretiroa saregileek, neskatilek eta enpakatzaileek**



duen arrantza jasangarriaren inguruko legeak aurrera egiten badu, jubilazio adin ofiziala baino lau urte lehenago hartu ahal izango dute erretiroa saregileek, neskatilek eta enpakatzaileek. Hori betetzen denean, arrantza sektorean lan egiten duten gizonek aspaldidanik daukaten baldintza lortuko dute emakumeek. Legeak ulertzen du arrantzaren sektorean lana gogorra dela, ahalegin fisiko handia eskatzen duela eta, beraz, jubilazio adina aurreratzea egokia dela. Arrantzaren munduan dabil-tzan emakumeek gogor borrokatu behar izan dute baldintza hori lortzeko. Pentsa, sektorean dauden gizonezko saregile urriek betidanik izan dute lehenago jubilatzeko aukera, arrantza sektoreko gizonezkoei aplikatzen zaien legea aplikatzen zaielako gizonezko saregileei ere. Emakumeei, berriz, ez. Legeak aurrera egiten badu –eta badirudi egingo duela–, arrantza munduko emakumeen aldarrikapen historiko bat betekoa da. Oraindik ba omen dago borrokan segitzeko arrazoirik, baina jubilazio adinarena lorpen handia litzateke.

«Gu pozik gaude. Aspalditik egiten genuen eskaera da. Agian erretiroaren adina aurreratuta, jende gehiago animatzen da saregile lanera», esan du Etxebarriak. Saregileak langile autonomoak dira. Lana egiten dutenean bakarrik kobratzen dute. «Gutxieneko soldata bat lortzeko lanean ari gara, hori ere bada gure aldarrikapena, baina ez dago erraza». Iazko kanpainan lan asko izan zuten, aste askotan segidan egunero hamaika ordu sareak josten aritu ziren. «Fisikoki lan gogorra da; beroa, hotza, haizea... hamaika orduz josten aritzea gogorra da gorputzarentzat eta adinean gora joanda, gero eta gehiago sumatzen da. Jubilazioarena oso ondo dago. Aurrerapen izugarria izango da».

Langabeziak eraman zuen Maitane Etxebarria sareak konpontzera. Sortu zaizkio lanerako beste aukera batzuk, baina ezetz esan die. «Ni pozik nago lan honetan, xarma berezia dauka. Egia da egunean hamaika ordu josten aritzea ez dela samurra, baina gero egun lasaiagoak ere izaten dira tartean eta





eskertzen da». Saregileen artean giro ona sumatzen da, «gure artean eta Euskal Herriko beste saregileekin harreman ona daukagu. Gure lana eta baldintzak ezagutzen ditugu, denok sentitzen gara ontzi berean. Erretiroaren adinarena oso albiste ona izan da denontzat, lan handia dago lorpen horren atzetik, aldarrikapena aspaldikoa da. Saregile guztiek ospatu dugu».

Josten ari diren sareak 400 metro dauzka. Antxoak arrantzatzeko erabiltzen da. «Sare batzuk besteak baino garbiago iristen dira. Guregana ekarri aurretik garbitu egiten dute arrantzaleek, batzuek besteak baino gehiago. Hala ere, denetarik topa daiteke hemen sarean; usteldutako arraina, karramarroak hilak... ez da oso atsegina izaten. Kostatu egiten da usain hori gainetik kentzen».

«KRESALA DAUKAGU ZAINETAN»

Udan eta neguan desberdina da lana. Normalean neguan arrantzaleak etxetik bueltan ibiltzen dira eta saregileek lana pausatuago egiten dute, denboraldia hasten denerako sareak txukuntzen eta prestatzen dituzte. Arrantzako denboraldian, aldiz, unean-unean sortzen diren presazko lanak egin behar dituzte, sareak konpondu arrantzaleak berriz itsasora abiatzeko.

Patroi bakoitzak gustu eta eskaera propioak ditu. Batzuei sare beltza eta hari beltza gustatzen zaie, beste batzuei marroia eta marroia. «Hariak itsasontzi bakoitzak jartzen ditu, gustu propioak izaten dituztelako. Patroi bakoitzari sarea bere modura egotea gustatzen zaio», azaldu du Etxebarriak.

Olga Kanpandegi hondarribiarra da, 54 urte ditu eta 34 urte daramatza saregile lanean. Bera da Hondarribiko saregileen arduraduna. «Nire familia osoa arrantzalea da. Aitak itsasontzi bat zuen, eskola ez zitzaidan asko gustatzen eta aitak sareak konpontzen ikasten jarri ninduen. Eta horrela hasi nintzen 19 urte nituela. Gaur arte». Kanpandegiren semeak ere itsasoan dabilta. Berak dioenez, «kresala daukagu zainetan». Berez lanbidea ez da asko aldatu, jostea jostea da lehen eta orain, baina baldin-



Lerro hauen gainean eta alboko orrialdean, Hondarribiko saregileak, lan betean. Egun hamabost emakume aritzen dira Hondarribian sareak konpontzen.  
Jon URBE | FOKU

tza batzuk aldatu dira. «Sareak askoz handiagoak dira eta josteko haria lodiagoa da. Sareak mugitzeko garabiak erabiltzen ditugu orain, lehen eskuz egiten genuen. Lehen sare handiak zirenak orain txikiak dira. Oraingo sareak lehengoak bikoitza dira. Itsasontziak ere handiagoak dira, prestatuagoak daude eta sareek urpe-

ratze handiagoa daukate orain, arrain gehiago arrantzatzeko. Teknika aldatu da». Urteotan, saregile asko ikusi ditu erretiroa hartzen. Lanbidean hasten, gutxiago. «Saregileena ez da lan ziurra, ezegonkorra da. Hilabete eman dugu orain, adibidez, lanik gabe. Jende asko ez da animatzen horregatik. Guretzako lanbide bat baino gehiago, bizimodu bat da. Beti gaude hemen, itsasoaren bueltan».

Lanbide gogorra da. Eguraldiak agintzen du saregileak hotza edo beroa pasatuko duen, kaleko lana da. Hondarribian badira urte batzuk aterpean aritzen direla eta horrek samurtzen du egoera. Baina beste kai askotan oraindik kalean aritzen dira saregileak, aterperik gabe.

Erritmo desberdinetako lanetan aritzen dira saregileak. «Gaur arratsaldean bi itsasontzi sartuko dira sareak zulatua dituztela. Horiek ahalik azkarren konpondu behar ditugu, astelehenerako behar dituzte, berriz arrantzara ateratzeko. Berriz, hemen dagoen sare honek ez dauka hainbeste presarik, udarako, atunetarako prestatu



behar da. Konpontzen dugunean abisua eman eta bila etorriko dira».

Hamalau bat tonako sarea da hankapean daukaguna. «Hau ez da oso handia, badira handiagoak. Lehen eskuz mugitzen genituen, pentsa. Orain garabiekin mugitzen ditugu. Lan gogorra da, prekarioa, ezegonkorra... Euskal Herrian gehienbat emakumeak aritzen gara, ez da kasualitatea», esan du Kanpandegik.

**SAREGILEAREN TITULUA**

Olga Kanpandegik, beste saregile askok bezala, lanbidea eginez ikasi zuen, eskarmentua zuten saregileen ondoan eta haiei begira. Badira hamar urte baino gehiago saregile aritzeko titulua behar dela. Lanbideari errekonozimendua eta duintasuna emateko bidean urrats garrantzitsua izan zen hori ere. Eta Kanpandegi bezala, eskarmentu handiko beste hamarnaka saregile gerturatu ziren ikastaroa egin eta titulua lortzera. «Orain ere izaten dira ikastaroak eta egia esan jendea gerturatzen da. Hiru hilabeteko ikastaroa izaten da. Nik beste saregile baten etxean ikasi nuen josten, Piliren etxean. Eskua hartu nuenean, 'goazen kaira, prest zaude' esan zidan eta gaur arte. Duela zortzi-hamar urte ikastaroa egin nuen, nire egoera formalizatzeko. Erotu nintzen ikastaroan. Guk modu batera egiten dugu sareen konponketa. Matematika erabiltzen dugu, gure modura. Sarea muntatu behar da, zenbat berun, zenbat kortxo, gauza bakoitza non eta nola... patroi bakoitzak bere modura antolatu nahi du sarea eta gu horretara moldatzen gara. Nik banekien egiten, baina nire modura. Ikastaroan matematika klaseekin hasi zirenean ia erotu nintzen. Baina, tira, hori ere egin genuen».

Olga Kanpandegirekin batera egin zuen ikastaroa Ami Thiorrek. 2005. urtean etorri zen Senegaldik Euskal Herrira, Hondarribira. Senarra arrantzalea da eta bera, saregilea 2005. urtetik bertatik. «Ez nuen lana ezagutzen, dena berria zen niretzat. Ikastaroa egin nuen, sareak josten ikasi nuen eta geroztik hemen nago lanean. Ez da erraza

ikastea. Asko gustatzen zait lana eta gehien gustatzen zaidana ditudan lan-kideak eta hemen dagoen giroa da. Lan gogorra da, ez dauka ordutegi finkorik, baina oso lan polita da. Ni pozik nago», azaldu du.

**«Sareak handiagoak dira orain eta josteko haria, lodiagoa. Sareak mugitzeko garabiak erabiltzen ditugu orain, lehen eskuz egiten genuen. Itsasontziak ere handiagoak dira, prestatuagoak daude eta sareek urperatze handiagoa dute»**

**Sarea konpondu ez ezik, sareak muntatu ere egiten dituzte. «Sarea muntatu behar da, zenbat berun, zenbat kortxo, gauza bakoitza non eta nola... patroi bakoitzak bere modura antolatu nahi du sarea eta gu horretara moldatzen gara»**







**Gorka Etxebarria Dueñas**  
Historialaria

## Zinema biografikoa

**P**aul Ricoeur filosofoak idatzi zuen gure identitateak narratiboak direla. Gure burua azaltzeko orduan, gure biografia sortzen dugu-

la. Aurreko urtean plazaratutako bi filmek biografiaren eraikuntza hori ardatz dutela iruditzen zait. Bata Maixabel (Iciar Bollain, 2021) da, Maixabel Lasaren istorioa kontatzen duena, bere senarra zen Juan Mari Jauregi ETak hil zuenetik aurrera. Bestea Érase una vez en Euskadi (Manu Gómez, 2021), Gipuzkoako herri batean 1980ko hamarkadan dauden gaztetxo batzuei buruzkoa.

Lehenean badago pasarte bat Maixabel ETako kide batekin elkartzen dena. Etakideak bere bizia kontatzen dio eta Maixabelek berea eta bere senarrarena. Filmeko unerik interesgarriena da, nolabait bi bizitza tragikoki gurutzatu ziren unea berreraikitzeke eta testuinguratzeko aukera ematen baitu. Baina, zoritxarrez, filmeko une interesgarri bakarra iruditut zait. Gainontzekoan, beste filme askotan bezala, ohiko diskurtsoak eta arketipoak errepikatzen dirae

**Diskurtso errepikakor horretan, heldu batek (Estatua) haur bati (etakidea) hitz egiten dio. Hobe esanik, errieta egiten dio.** Etakidea zibilizazioa eta moraltasun justua ezagutzen dituen beste norbaitek hezi behar du, arauak eta bizikidetzara oraindik ondo ulertzen ez dituen haur bat balitz bezala. Benetako moralara ezagutu behar du, eguzkia eta jainko paganoak gurtzeari utzi. Eta parabola erlijioso onenetan bezalaxe, etakideek fede berria errebelazio baten bidez lortzen dute. Piztia izateari utzi eta eskainitako ongia bere

egiten dute. Oso eboluzio bat-batekoa da, dialektikarik gabea. Bestetik, Estatuaren ordezkariak moral absolutua eta egonkorra du. Bere bizitza guztian zehar puru mantendu duena. Horrelako arketipoek, barkaiezadazue broma, Ken Loach nabarduren errege bihurtzen dute.

Bigarren filmean zuzendariak bere haurtzaroaren berraketa egiten du. Kasu honetan, sinplista baino zertxobait masokista ere iruditut zait. Lagun batek esan zidan aurrekoan, eta ados nago, integrazioari buruzko istorioa kontatzen du. Hobe esanda, integrazioari ezari buruzko istorioa. Baina niri ez zait batere sinesgarria egin. Espainiako migrante familiek, sema koxkorrekin jada, ez dute herrian beste inor ezagutzen, batez ere emazteek. Familia bateko semea etakide bihurtzen denean, ama, herriko plazan bizi dena, ezker abertzaleko protesta batera hurbiltzen da: “esto, lo que hacéis

aquí”. Ez omen du inongo ideiarik zer ari diren egiten edo nortzuk diren. Are gehiago, bere semearen inguruan galdetzen dien unean, isildu eta bizkarra ematen diote. Ezker abertzalekoak bereziki jende bordea ziren. Beste zenbait pasarte dispartatu ere baditu. Esanguratsuen, aita migranteari greba egiteko presio egiten diotenean. Euskal hiztunak oso gaiztoak omen ziren garai horretan, migranteak lan gatazkak konpontzeko greba egitera behartzen baitzituzten.

**Azken finean, bi filmeetan familia nuklearraren eta balore tradizionalen aldarrikapena dago.** ETA eta euskal nazionalismoa izan dira familiei bere rol naturalak bizitzen utzi ez dietenak (Patrian bezala, bide batez). Totalitarismoari eta ideologia maltzurrei kritikaren ustean, balore kontserbadoreak dira aldarrikatzen dituztenak. Pena da. •



Ilustrazioa: JONBI EGURTZEGI



{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

# Emakumeek ez dute inoiz ezer deskubritzen

Emakumeek ez dute inoiz ezer deskubritzen; Jainkoak gizonen adimen gorenentzat gordetako talentu sortzailea falta zaie. Emakume ororen bizitzaren helburua, berak simulatu (edo disimulatu) nahi duen arren, nork menderatuko duen gizona aurkitzeko desira besterik ez da». Pilar Primo de Riverak 1947. urtean Falangearen Sección Femeninak Madrilen antolatutako hitzaldi batean esandakoak dira. «Gizonezkook existitzen den guztia egin eta asmatu dugu (...) Nire arbasoek mundua konkistatu zuten. Zer egin zuten emakumeek haurdun gelditzeaz gain? Deus ez», Jose Eduardo (@JoseEdu42215929) Twitterren, 2022ko ekainaren 12an.

Gezurra dirudien arren, 75 urte pasatu dira Pilar Primo de Riveraren eta Jose Eduardoren hitzen artean. Antza denez, batzuek jarraitzen dute pentsatzen emakumeok, erditzeaz gain, ez dugula ekarpen esanguratsurik egin gizartearen historian. Alde batera utzita ugalketarik gabe Jose Eduardo bezalako gizonak ez zirela existituko, nahiko zabaldua dagoen ideia da hau, ezta? Horrelako usteez ari zen Gerda Lerner historiagilea honako hau zioenean:

«Historian emakumeen presentzia gutxiestea beste genero indarkeria mota bat da». Arazoa ez da zure arbasoek mundua konkistatzea, Jose Eduardo, arazoa da historiografia androzentrikoak joera izan duela esateko erregeen bizitzak, erresumen nondik norakoak, konkistak eta gerrak direla historiatu daitezkeen gauza bakarrak. Horregatik pentsatzen du Jose Eduardok emakumeok egin dugun ekarpen bakarra erditzea izan dela, hain zuzen ere, emakumeak protagonista izan garen esparruak itzaletan mantendu direlako. Eta esparru horiek interes his-

toriografikotik kanpo gelditu badira, gu horien protagonistak izan garelako izan da. Horrek ez du esan nahi alboetan gelditu den historia hori guztia historiagarria ez denik edo gizateriaren historian garrantzirik ez duenik. Horretaz gain, beste egun baterako utzi beharko dugu azaltzea zergatik mendeetan zehar etxeko esferara eta zaintzaren mundura baztertuak izan garen emakumeak.

Dena dela, izugarri gustatzen zait iritzi hau konpartitzen duten gizon gehienek enperadore, konkistatzaile eta gerlari handien ondorengoak direla uste izatea, nekazarienak, proletarioenak edo esklaboenak izan litezkeenean. Barregarria suertatzen zait, benetan, errenkarnazioan sinesten duten eta beste bizitza batzuetan Napoleon, Kleopatra edo

«Gizonezkook existitzen den guztia egin eta asmatu dugu (...) Nire arbasoek mundua konkistatu zuten. Zer egin zuten emakumeek haurdun gelditzeaz gain? Deus ez». Jose Eduardo izeneko batek Twitterren idatzia, 2022ko ekainean

Henrike VIII.a izan direla esaten duten pertsonak bezala, inoiz ez XIV. mendeko laborari bat, Izurrite Beltza jota hil zena.

Txundituta geratzen naiz Jose Eduardo bezalako gizon asko daudelako, beren arbasoak gizonezkoak bakarrik izan direla uste dutenak. Antza denez, euren maskulinitasuna indartzeko beharrak ugalketa prozesuari buruzko oinarritzko nozioak ezabatzen omen dizkie. Ez al dakite emakume batek munduratu zituela? Ez al dakite nola funtzionatzen duen ugalketak? •

**K**asu deigarria da AEK Larnaka Zipreko taldearena. Kirol zuzendari-tzan euskaldunen alde egindako apustuak hainbat jokalaria eta entrenatzaile euskaldun eraman ditu talde horretara azken urteetan. Gaur egun kirol zuzendari lanetan Xavi Roca kataluniarra dagoen arren, Oier Sanjurjo nafarra izan da zipretarrekin fitxatzen azkena. Gehienek esperientzia bizi eta denbora nahiko gutxi ematen dute ber-

tan, baina Mikel Gonzalezek (Arrasate, 1985) bosgarren denboraldia beteko du Zipre hegoaldeko hirian, bertan oso pozik dagoen seinale. Berarekin hitz egin dugu taldearen eta hiriaren berri jakiteko.

**Berrienetik hasiko gara. Zer moduz joan da aurreko denboraldia?**

Ondo. Egia esan, nahiko denboraldi txukuna egin dugu. Bigarren bukatu dugu eta bigarren izateak aurten Championseko kanporaketa aurrekoak jokatzeko aukera

ematen digu. AEK Larnakak bere historian lehen aldiz jokatuko ditu kanporaketa horiek eta halako talde batentzat lorpen aipagarria da. Europako liga denak gero eta lehiakorrago bihurtzen ari dira, Ziprekoa ere bai. Baina ziur jende askok ez duela ezagutuko, normala den bezala, nik ere etorri aurretik ez nuelako ezagutzen.

**Nikosia hiriburuko taldeak ibiltzen dira batez ere sailkapenaren goialdean, eta zuek ere borroka horretan sartzen zarete denboraldi gehiene-**

*«Andoni Iraola zen entrenatzailea ni iritsi nintzen denboraldian.*

*Aurretik Imanol Idiakez egon zen; Javi Garridok ere jokatu zuen urtebete; Igor Gabilondo, Mikel Saizar... Neuzkan erreferentzia denak onak ziren»*

**tan. Balorazio positiboa egin duzue, beraz?**

Orain dela hogeitau urte pasatxo sortu zen klub hau; alde horretatik klub txiki bat da, baina hazten ari da azken urteetan. Aurtengo helburua bazen Europako kanporaketaren bat jokatzea. Kontuan izan behar da Zipreko lehen mailan hamabi talde daudela eta horietatik bostek Europako kanporaketaren bat jokatzen dutela. Ez dakit ziur UEFAn zer koefiziente edukiko duen Zipreko ligak, baina hamabitik bost Europara sailkatzeak zerbait esan





# «Ziprera heldu nintzen lehen momentutik oso gustura sentitu nintzen»

nahi du; ez dagoela horren be-  
hean besteekin alderatuta.

**Motibazio berezi bat izango da denontzat, ezta? Klubarentzat, jokalarientzat, zaleentzat batez ere...**

Europar jokatzek zaur klubar-  
entzat eragin positiboa duela,  
eta guretzat ere polita da bi-  
daiatzea, zure ligakoak ez di-  
ren talde batzuen aurka joka-  
tzea... Politak izango da.

**Pertsonalki zer balorazio egi-  
ten duzu? Azken neurketetan  
titular izan zinela ikusi dut.**

Bada, ez dut nahi beste jokatu  
aurten. Azken partidetan  
gehiago jokatu dut, bai, eta on-  
gi sentitu naiz. Beste urte bate-  
rako berri du kontratua,  
beste denboraldi bat egongo  
naiz han, eta hortxe jarraituko  
dut. Pozik. Oso egokituta nago  
hango bizitzara, familia ere  
gustura dago, eta ni ere ongi  
sentitu naiz jokatu dudanean.

**Bosgarren urtea beteko duzu,  
beraz, Larnakan. Horrek esan  
nahi du oso pozik zaudela tal-  
dean, hirian, herrialdean...**

Bai, bai. Galdetu izan bazenit  
orain bost edo sei urte ea 37  
urterekin futboleko jokatzeko  
jarraituko nuen, *‘ni de coña’*  
erantzuko nintzen. Baina Zi-  
prera etortzea erabaki nuen  
eta heldu nintzen lehen mo-  
mentutik oso gustura sentitu  
nintzen. Irla txiki batean joka-  
tzeak beste abantaila bat ere  
badu: etxetik kanpoko parti-  
duak jokatzeko ez duzu bidaia  
luzerik egin behar; ordu erdi  
edo ordubeteko bidaiak dira  
normalean, eta horrek eros-  
tasuna ematen du. Eta jada  
oso egokituta nago hango bizi-  
tzara, kluba ezagutzen dut, no-  
la funtzionatzen duen hango  
lan egiteko moduak... Oso ero-  
so nago.

**Begiratu dezagun atzera. Nola  
sortu zen Ziprera joateko au-  
kera?**

Realetik irtendakoan Zarago-  
zan jokatu nuen urte bat eta  
hurrengo udan Ander Muri-  
llok deitu zidan, Athleticeko  
jokalaria ohiak. Kirol zuzendari  
moduan zebilen orduan AEK  
Larnakan, eta aurrez bertan jo-  
kalari ibilitakoa zen bera. Au-  
kera eman zidan bertara joate-  
ko, eta nik ere baneukan gogo-  
a atzerrira joan eta zerbait be-  
rria probatzeko. Familiarekin  
begiratu egin genuen apur bat,  
bertan jokatu jende asko-  
rekin hitz egin nuen eta denek  
erreferentzia onak ematen ziz-  
kidaten eta joan egin ginen.

**Euskaldun asko pasatu ziren  
garai hartan taldetik, ezta?**

Bai. Andoni Iraola zen entre-  
natzailea ni iritsi nintzen den-  
boraldian, adibidez. Aurretik  
Imanol Idiakez egon zen; Javi  
Garridok ere jokatu zuen urte-  
bete; Igor Gabilondo, Mikel  
Saizar... Neuzkan erreferentzia  
denak onak ziren eta ez naiz  
damutzen joan izanaz.

**Pentsatzen dut erabakia har-  
tzerakoan horrek asko lagun-  
duko zuela, klub serioa dela  
erakusten baitu.**

Klub txikia da, baina serioa,  
hori bai. Agian ez dauka Rea-  
lak edo Zaragozak daukan egi-  
turarik, horrenbeste jende la-  
nean barruan, edo  
horrenbeste jarraitzaile. Ho-  
rretan ezin da konparatu, nos-  
ki, baina gauzak ongi egiten  
ari dira azkenaldian, hazten  
ari dira, eta horren parte iza-  
tea ongi dago.

**Gaztekeraz hitz egiten duten  
jokalaria dezente daude talde-  
an, baina aldagela oso askota-  
rikoa da. Ingelesekin aritzen za-  
rete zuen artean?**

Hemengo hizkuntza ofiziala  
greziera da, baina 60ko ha-  
markadara arte kolonia inge-  
les bat zen, eta horregatik ia  
denek dakite ingelesez. Eta tal-  
dean ere aldagelako hizkuntza  
nagusia ingelesa da. Orain lau  
urte iritsi nintzenean gazte-  
keraz asko hitz egiten zen; agian  
hamar edo hamabi jokalaria  
egongo ginen gaztekeraz hitz  
egin genezakeenak. Askok da Zi-  
preko talde bat izateko. Orain  
gutxiago, orain lau edo bost  
izango gara, bi venezuelar ere  
badaudelako, eta mundu oso-  
ko jokalaria daudenez ingele-  
sez hitz egiten dugu batez ere.

**Hirira eta herrialdera ere  
erraz egokitu zinen? Kultu-  
ralki antzekoa da?**

Antzekoa da. Zerbait aipatze-  
kotan esango nuke irla bat de-  
la eta bizitza erritmoa agian  
lasaiagoa dela, baina ez nuen  
igarri aldaketa handirik. Beroa  
eta hezetasuna, hori bai. Uda-  
ko hilabeteak, adibidez, oso  
gogorak dira alde horretatik  
eta oso goiz entrenatu behar  
duzu. Baina Larnaka hiri txikia  
da, dena eskura daukazu, eta  
kulturalki ez zen shock handi-  
rik izan. Azkenean, uste du  
norberak daraman predisposi-  
zioak asko eragiten duela ego-  
kitzerako garaian eta kasu ho-  
netan gure erabakia izan zen  
hara joatea eta ederki moldatu  
ginen hasieratik.

**Zipreko alde bat Greziari lo-  
tuta bizi da eta bestea Turki-  
ara begira. Zatiketa hori naba-  
ritzen al da futboleko?**

Irla bi zatitan banatuta dago.  
Iparralde turkiarra da: sartze-  
ko pasaporte behar duzu,  
beste txanpon bat daukate,  
kulturalki desberdina da... Eta  
hegoaldea, gu bizi garen lekua,  
greziarra da, greziartzat dute  
beren burua; greziar-

## MIKEL GONZALEZ

### AEK LARNAKA-KO JOKALARIA

Arrasatearrak bosgarren denboraldia  
beteko du aurten Zipreko taldean, bertan  
erabat egonkortu den seinale. Hiriaren eta  
euskaldunekin harreman berezia duen  
taldearen inguruan aritu gara berarekin.

Asier Aiestaran

zipretarrak eta turkiar-  
zipretarrak esaten da norma-  
lean. Zipre estatu bat da, baina  
beren sentimendua oso grezia-  
rra da. Alde turkiarrean, adibi-  
dez, beste liga bat jokatzen du-  
te eta guk hegoaldeko liga  
jokatzen dugu. Historia inte-  
resgarria da. Nikosia, adibidez,  
bi aldeen hiriburua da, bai gre-  
ziarra eta bai turkiarra, eta  
eruditik zatituta dago. Pasa-  
tu zaitezke batetik bestera,  
baina kurioa da. 1974an ger-  
tatu zen gerrate hori eta tur-  
kiarrek irla erdia hartu zuten.

**Zuek alde greziarreko taldeen  
aurka bakarrik jokatzen du-  
zue, orduan?**

Bai, hori da, ez duzu irla osoan  
jokatzen. Irla bat da, estatu ba-  
karra, baina horren barruan ia  
bi herrialde desberdin bezala  
funtzionatzen dute. Europar  
Batasunak ez du onartzen ipa-  
rraldeko zati hori, baina Tur-  
kiak bai eta ekialdeko herrial-  
de denek ere bai. Mobida  
politiko ‘polita’ dagoela esan  
daiteke, interesgarria da.

**Azken bizpahiru urteak bere-  
ziak izan dira pandemiagatik  
ere. Nola bizi izan duzue han?**

Futbolari dagokionez, denbo-  
raldia bertan behera geratu  
zen aurreneko denboraldian,  
ez genuen amaitu. Eta oroko-  
rrean esango nuke Europa  
osoan nahiko antzekoa izan  
dela egoera. Herrialde denak  
soka batekin lotuta daude eta  
bat erortzen bada besteak ere  
bai. Zipreko berezitasun baka-  
rra zen pare bat aste beran-  
duago heltzen zirela gauzak:  
bai konfinamendua, bai neu-  
rriak... Hori izan da sentsazioa.

**Eta nola ikusi duzu Reala dis-  
tantziatik?**

Bada, gure partiduengatik, or-  
dutegiengatik eta abar ez ditut



AEK LARNAKA

nahi nituen partida guztiak  
ikusi, baina azken urteetan Re-  
ala izaten ari den ibilbidea, bai  
Europarako sailkapenak, bai  
Kopako titulua, sekulakoa izan  
da. Harrobia ere sekulako lana  
egiten ari da: urtero irteten di-  
ra jokalar berriak, bigarren  
taldea Bigarren Mailara igo  
zen... Uste dut sekulako  
proiektua dagoela, oso lan ona  
egiten ari dela, eta Realeko za-  
le denek oso harro egoteko  
arrazoiak dituztela. Han ere  
Realaren inguruan hitz egiten  
dugunean mundu guztiak oso

estimatua dauka; badakite  
etxeko zenbat jokalar dauden  
eta zer maila ematen ari diren.  
Oso garrantzitsua da eta harro  
egoteko modukoa.

**Ez duzu onartuko, baina  
oraingo loraldiaren oinarria  
zuek jarri zenuten hein handi  
batean: Lehen Mailara igo,  
goian sendotu, Europarako  
sailkatu... Zer oroitzapen di-  
tuzu garai hartaz?**

Oso oroitzapen onak dauzkat.  
Oso onak. Eta bai, egia da, Le-  
hen Mailara igo ginenean esan

liteke hortxe hasi zela dena.  
Aurreneko bi urteetan mailari  
eutsi, talde sendo bat eraiki,  
eta gero Europarako sailkapen  
horiekin beste dena etorri zen.  
Baina ez da erraza hamabi ur-  
tean maila horretan ibiltzea.  
Ikusten da egitura oso sendoa  
eraiki dela, ez bakarrik lehen  
taldea, beheko maila guztietar-  
koa ere bai. Oso esanguratsua  
da. Ikusten dituzu jokalariek  
lehen taldean debutatzen, eza-  
gutzen ez dituzunak, eta seku-  
lako maila ematen dute. Ez de-  
butatu bakarrik, hogeita partida

«Estatu bakarra da,  
baina horren  
barruan ia bi  
herrialde desberdin  
bezala  
funtzionatzen dute.  
Europar Batasunak  
ez du onartzen  
iparraldeko zatia,  
baina Turkiak bai  
eta ekialdeko  
herrialde denek ere  
bai. Mobida politiko  
‘polita’ dagoela esan  
daiteke,  
interesgarria da»



jokatzen dituzte. Harritu ez  
nau harritzen, baina oso harro  
egoteko modukoa da.

**Oporretan harrapatu zaitugu  
[elkarriketa ekain hasieran  
egina da], baina Europako  
kanporaketa horiek goiz ha-  
siko direla suposatzen dut.**

Bai. Ekainaren 14an hasiko ga-  
ra entrenatzen.

**Aurten opor gutxi orduan...**

Hiru aste. Nahikoa. Hortik go-  
ra agian arriskutsua izan liteke  
niretzat (barrez).



# Ahots goraz

Joxean Agirre

**B**ilboko Arriagan ahots goraz egin ohi den euskal klasiko baten irakurketa egileari (aurten Saizarbitoriari) gorazarre egiteko antolatzen da, baina bidenabar orain gutxi arte horrelaxe irakurtzen zela gogoratzeko ere balio digu.

Diotenez, XVI. menderako aristokrazia kultua hasita zegoen isilka irakurtzen eta ohitura hori inprentaren asmakizuna bezain garrantzitsua izan zela nabarmentzen dute, kontzientzia indibiduala sortzen lagundu zuelako, ekintza gutxi baitira irakurketa isila bezain intimoak eta askatzaileak, baina herritar xeheek, irakurtzen zekitenek noski, ahots goraz irakurtzen jarraitu dute oraintsu arte.

Norbaiti entzuten diodanean bere aitonak igandeetako egunkaria familia

osoarentzat irakurtzen zuela, pentsatu ohi dut isilka irakurtzen ez zekielako zela. Gure amak berak ere, ez nago seguru, baina uste dut ezpainak mugituz irakurtzen zituela anaia zaharrenak soldaduskan zegoela Chafarinas uharteetatik bidaltzen zituen gutunak.

Ahots goraz irakurtzen onenak politikariak dira. Nazioarteko goi bilera bateara aholkulariek idatzitako testuarekin joatea normala da, baina Legebiltzarreko eztabaida batean paperekoa irakurriz erantzutea ez dirudi onargarria denik, baina egiten dute.

Ahots goraz irakurtzen famatuena Alberto Manguel idazlea izango da, gaztetan entzule pribilegiatua izan zuelako, itsutzen hasita zegoen Jorge Luis Borges alegia. Nik ez nuen hain entzule famatu-

rik izan, baina hiru bat nobela irakurri nizkion uda batez aitonari nerabea nintzela baserriko sukaldean, tartean “Uztaro” izeneko lan kostunbrista bat, Tomas Agirre *Barrensorok* 1937. urtean idatzia. Gerraurreko pizkundean eragile saiatua izan zen erreizildar (Maria Dolores Agirrerren anaia zen nonbait) horren berri gelditu da bazterretan, baina nobela bera desagertu egin dela esango nuke. Batzuetan pentsatzen dut aitona eta biok izan ginela “Uztaro” azkena irakurri genuenak.

Nik ez dut ahots goraz irakurtzen, baina gero eta gehiagotan sumatzen naiz ezpainak mugituz neure buruarekin hizketan, ahots goraz pentsatzen hastekotan banengo bezala, eta horrek kezkatu egiten nau. •

# Sandaliak

Asier Aiestaran

**U**da giroa iritsi da eta berarekin soinean arropa gutxiago jantzeko aukera eta gogoia. Oinetakoei dagokienez, txankleta eta sandalien garaia da... batzuentzat. Izan ere, eta saiatzen naizen arren, ez dut lortzen horrelakoak jantzita eroso sentitzea. Hondartzako buelta egiteko agian juxtu-juxtu, baina gutxi gehiago.

Onartu behar dut inbidia ematen dion datela hiru eguzki printza ikusi bezain laster kaletik txankletak jantzita ibiltzen diren horiek. Normalean eguzkitako betaurrekoekin osatzen da “look”-a, eta nahigabe ere zoriontasunarekin lotzen dut irudia. Agian orduantxe atera da pertsona hori dentistarenetik, edo ospi-

talera doa senitartekoren bat zaintzera, baina nire buruan hondartzan etzanda irudikatzen dut, itsasoari begira eta caipirinha bat edaten.

Nire esperientzia oso bestelakoa da. Txankletak jantzita hondartzara abiatu eta patuak norabidez aldatu nauen baikoitzean, hankazpiak “krixto bat” egin da amaitu izan dut. Baita behatzen bat minduta ere, koxkaren bat ikusi ez eta lurrari ostikoa jota. Alde ederreko dotoreria ikusten diet gazte askori, zola finfineko “hawaianak” jantzita.

Nire ezintasunaren pauso logikoa sandaliak probatzea izan zen, luzimenduan galdutakoa erosotasunean irabaziko nuelakoan, baina hor ere mirari gutxi.

Oina benetan libre sentiarazten dutenek txankleten desabantaila bertsuak dituzte, eta oina benetan babesten dutenek ez dute sarri askotan “sandalia” kategorian sartzerik ere merezi.

Salomonen iragarki batean ikusia: Water Contagrip, Quicklace, EnergyCell, Sensifit... 100 eurotik gora. Everesteko trekkinga egiteko oso baliagarriak izango dira agian, baina buruan nituen hondartzara, itsaso eta caipirinhetatik gehiegi urruntzea litzateke hori.

Etengabeko bilaketa horretan, azken urrats baten atarian nago, arriskatu edo ez erabakitzen: sandaliak galtzerdiekin jantzea. Pentsatzen dudana bitartean betiko zapatilekin jarraitu beharko. •



Alai  
**ZUBIMENDI**

# iRRITZIA:







## PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

# Telesail britainiarrak: 22ko uzta

### In My Skin

FILMIN

Kayleigh Llewellyn-ek sortutako komedia dramatiko beltza da, familiako bizitza disfunzionala isilpean gorde nahi duen nerabe baten bizitza gogorra azaltzen duena. Bethan da protagonista, bere bizitza familiarra lagunei zein irakasleei ezkutatzeko dien neska galesa. Guztiei gauza bera esaten die; aita funtzionarioa dela eta amak giza baliabideen departamentuko enpresa batean lan egiten duela. Baina Bethanen errealitatea oso bestelakoa da, familia egoera jasanezina baita oso. Telesail gazi-gozoa da, *coming-of-age* generoaz baliatuz komedia eta dramaren artean mugitzen baita une oro, eta ikusleari familia egoera guztiz lazarria helaraztea lortzen du. Gidoi mailan bikaina iruditu zait, eta ikus-entzunezko lengoaiari dagokionez ere nabarmentzen da; une jakin batzuetan laugarren horma hausten du protagonistak, eta bere pentsamenduen off ahotsarekin batera oso ondo erabiltzen den baliabidea da, telesailari ñabardurak eta sakontasuna ematen dizkiona.

### This Is Going to Hurt

MOVISTAR

Odola, mina eta malkoak. Iruzikin hau hasteko aukeratu ditudan hitzak kontuan izanda, telesail beliko bati buruz ari naizela dirudien arren, ospitale publiko bateko obstetritzia eta ginekologia sailean mediku

«Black Mirror», «Peaky Blinders», «Sherlock», «Fleabag», «Downton Abbey», «Line of Duty», «Utopia», «The Crown», «Happy Valley», «Broadchurch»... Azken urteotan Britainia Handitik iritsi zaizkigun telesail bikain guztiak zerrendatu beharko banitu egunkari osoa beharko nuke. Hauen osagai ohikoenak: denboraldi laburrak, intentsitate handia, tarteka hain berezkoa duten umore berezi hori, harrapatzen duen istorioa eta ekoizpen balio ikusgarriak izaten dira. Aurtengo urtarillaz geroztik, bertatik datorren uzta apurka jasotzen joan naiz, belar txar guztia garbitu dut eta soro zabal horretan sortutako elikagai gustagarrienak jaso ditut zuretzat. Hementxe, Britainia Handiko 22ko uztaren emaitza.



gisa lan egiten duen gure protagonistaren bizipenei buruz ari naiz. Hain estresagarria da telesailak transmititzen duen egunerokoa, ezen umore oso beltza duen komedia izateaz harago, thriller frenetiko bat dirudien.

Telesail honen istorioa Adam Kay gidoilariak lehen pertsonan bizi izan zituen esperientziak bezain erreala da. Brightonen jaiotako gidoilari honek telesailaren izen bereko liburuan idatzi baitzituen, umorez, ospitale batean lanean aritu zeneko bizipen guztiak. BBCren ekoizpena izatea kalitate berme bat dela argi dago, baina are gehiago aktore protagonista Ben Whishaw deanean. Adam gorpuzten du, bere bizitza infernu iraunkorra dirudien mediku egoiliarra. Ospitale bateko erditze eta ginekologia hegalean egiten du lan, eta burdinazko eskuarekin gobernatzen du zuzendari oso zorrotz batek. Protagonistaren une emozional bortitzenetan, laugarren hormaren haustura batekin tartekatzen da, alegia, pertsonaiak zuzenean ikusleari hitz egiten dio – “House of Cards”, “Fleabag” eta beste hainbatetan ikusi dugun bezala–; modu honetan sortzen den konplizitatea, istorioaren

euskarrietako bat bilakatzen delarik.

Ahaztu “House”, “Greys Anatomy” eta tankerako mediku telesail konbentzionalak. Oso gutxitan ikusi eta bizitako sekuentzia estresagarriak, gogorak, dramatikoak eta, noski, baita zoriontsuak ere, pantailaratu baitituzte Lucy Forbes eta Tom Kingsley sortzaileek, guztia gainera, umore (oso) beltzez bustia. Egoera horiei ezinezko ordutegiak dituzten lanaldi amaigabeak gehitzen badizkiegu, lo faltaren edo nekearen erruz harturiko erabaki txarrak, kutsu surrealista betetako uneak biziaraiziko dizkigute. Lan mota honetan gertatzen dena kontatzeaz gain, arrazakeria, lan prekaritatea eta gizarte britainiarreko gai polemiko gehiago ere salatzen ditu; erditzea normaltasunez garatzen ez denean sortzen diren albo kalteak, adibidez.

### Anne

FILMIN

Lau atalez osaturiko minisail gogorra eta dramatikoa, oso. Benetako gertaera batean oinarritua, Liverpoolen girotzen da, 1989. urtean, eta Hillsborougheko tragedia bezala eza gutzen den gertaera azaltzen du. Urte hartako maiatzaren 15ean futbolaren historian egon den hondamendi handienetakoa jazo zen. Ingalaterrako Kopako finalerdietako partida Nottingham Forest eta Liverpoolen artean jokatzeko ari zen bitartean, jende olde baten ondorioz, Hillsborougheko zelaian 96 pertsona hesia-


ren aurka zapalduta hil ziren. Telesailak gertaera hori helduleku gisa erabiltzen duen arren, izenburuari erreferentzia egiten dion Anne Williams-en –bertan hil zen gazteetako baten ama– pertsonan zentratzen da. Ama gorpuztuz, Maxine Peake-ren antzezpen lana ikusgarria irudituz, sufrimendu horrek guztiak pantailea zeharkatzea lortzen baitu gure bihotza birrintzeraino. Egia ezagutzeko eta justizia egiteko borroka nekaezin horren testigu bilakatuko zara lehen segundotik.

## Help

MOVISTAR

Tranpa apur bat egin dudala aitortuko dizut, honakoa ez baita telesail formatua duen ekoizpena. Ingalaterrako Channel 4 katean eman zuten arren, telebistarako sorturiko filma da, pieza bakarrekoa. Baina hain latza eta ona iruditzen zaidanez, zuen baimenarekin, zerrendan sartuko dut. Gainera, covid-19aren garaian sortu diren ikus-entzunezkoen artean onenetarikoa da, zalan-tza izpirik gabe.

Badirudi Sarahk bere bokazioa aurkitu duela Liverpooleko zahar etxe batean lanean hasi delako. Bertan, talentu berezia du egoiliarrekin konektatzeko. Baina, ezustean, 2020ko martxoan, koronabirusaren pandemia iristen da eta guztia aldatuko du betiko. Bai gaia-rengatik, eta bai bi protagonistak nagusien antzezlan ikaragariarengatik –Jodie Comer eta Stephen Graham–, film honek emozionalki guztiz birrinduta utzi nau. Gogorra da oso, gaia zein den ikusita ezin bestela izan, baina ikustea beharrezkoa den horietakoa iruditzen



zait. Pandemiaren erruz –eta bereziki politikari eta ardura-dunen kudeaketa negargarri eta salagarriaren erruz–, lehen pertsonan sentitu eta sufritu-ko baituzu zahar etxe eta era honetako zentroetan bizi izan zuten eta bizitzen ari diren guztia. Kasu honetan, pandemiaren lehenengo olatuaren barnean kokatzen gaitu, desinformazioaren eta nahitaezko konfinamenduaren unean, lanak gainezka egiten dion erizain baten begietatik. Filmak panfletotik ihes egiten du hasieratik, eta istorioa den bezala deskribatzen digu; zentro

horietako pertsonei gutxiene-ko arreta eskaintzeko baliabide faltak gainezka egiten dion langile horren ikuspuntutik. Bazterrean xehetasunik utzi gabe, kamera eskuan, ikusleok protagonistaren ondoan kokatzen gaituzte hasieratik, Jodie Comer izugarri baten alboan, eta hortik aurrera...

## Heartstopper

NETFLIX

Uste dut ikus-entzunezko hau txalotu beharrezkoa dela hain modu irekian, baikorrean eta normalizatuan bi mutil neraberen maitasun istorioa jorratzen duelako. Telesailaren asmoak argi eta garbi geratzen dira lehen ataletik, bi neraberen arteko harremana aztertzen duen kontakizun erromantikoa aurkituko baituzu hemen. Naturaltasunez azaltzen du nerabezaro bete-betean dauden bi mutilen arteko maitementze prozesua eta prozesu horretan sor daitezkeen gorabehera ia guztiak azaltzen dira; tximeletak sabelean, urduritasunak, ilusioa, etsipena, zerbait berria sentitzearen ziurgabetasuna, arbuiatua iza-

teko beldurra... 30 minutuko 8 kapituluetan, telesailak badaki maitasunaren eta adiskidetasunaren etapa guztiak jorratzen, eta erritmo ezin hobean eramaten ditu, gainera, oso orekatua eta aproposa dena protagonistekin egingo dugun bidaia hori sinesgarria izan dadin. Pertsonaia nagusi guztiak ezin hobeto eraikita daude eta hori da telesail honen euskarririk sendoenetako bat. Besaulkira itsatsita mantentzeko ahalmen nahikoa duten atalak diren arren, benetako indarra aktoreen zein pertsonaien aukeraketan datza. Aktore guztiek antzeztzen dituzten pertsonaien funtsa eta esentzia dute, guztiz sinesgarriak dira. Deigarria egin zaidan beste euskarria jariatzen duen tonu baikor eta argitsua da, pertsonaien tragediak ez baitira agerian geratzen eta horiek ez dira beren nortasunak edo gatazkak garatzeko ezinbestekoak, “Euphoria” telesaillean argi eta garbi gertatzen den bezala, adibidez. Nerabeen esperientziak bizitzen ari diren nerabeak besterik ez dira. Egia da hainbat eszenatan bullying-a ageri dela, edo LGBTQ+ kolektibo orokorren aurkako irainak, baina ez da traman benetako protagonismoa edo indarra duen zer-bait. Telesail osoa, eta muinean dauden ia azpitrama guztiak, harreman osasuntsuen eta balioen inguruan eraikia dago, eta errealtate bat izan beharko lukeena irudikatzen du: kolektibo horretako pertsonak pertsonak baino ez direla. Pertsonalki telesail ilunagoak gustuko ditut, barne gatazka zailak eta korapilatsuak dituzten pertsonaiez osaturikoak, alegia –aipatu dudana “Euphoria”, esaterako, ikaragarri gustuko dut–, baina



zenbat eskertzen den noizean behin argitasun baikor baten printzak leihotik sartzea eta haize freskoa arnastea.

## The responder

MOVISTAR

«Martin Freeman, minisail ingelesa eta drama poliziakoa». Hori irakurtzea nahikoa izan dut proposamen honen erraie-tan bi aldiz pentsatu gabe murgiltzeko. Telesaila Tony Schumacher polizia ohi eta idazlearen benetako esperien-tzietan oinarrituta dago, eta tramaren ekintza nagusia pro-tagonistaren astebeteko gaue-ko txandetan zentratzen da, gero eta tentsio handiagoz bizi duena. Horrek bizitza aldatuko dio, bai berari eta bai lankide berriari. Barrutik birrinduta egon arren legearen agente gi-sa duen erantzukizuna azkene-raino bete behar duen gizon baten bidaia iluna erakusten duen gidoi sinple baina sen-doa osatu du Schumacherrek, tartean, moralak, maitasuna edo galera bezalako gai uni-bertsalak jorratzen dituen bi-tartean. Osasun mentala fun-tsezkoa da pertsonaiaren garapenean, eta baita telesaile-an ere, noski. Gainerako per-sonaia guztiek ezagutzen du-te protagonista sufritzen ari den oinazea, eta komisariako kideek osasun mentalari bu-ruzko aurreiritzi klasikoak proiektatzen dituzte une oro. Batzuek adeitasunez tratatzen dute; beste batzuek, aldiz, mesfidantzaz. Ez da telesail bi-ribila inondik inora ere, hasie-ra batean mahaigaineratzen diren gai sakon horiek apur bat azaletik jorratzen dituelako, baina eraginkorra da oso, entretenigarria, eta osasun mentalari eta moraltasunari



buruzko hausnarketa esangu-ratsu eta urragarria.

## Showtrial

MOVISTAR

Ikasle bati leporatzen diote gertatu berri den hilketa bat. Kasuak iritzi publikoa astin-tzen du. Ia guztia aurka duen bere abokatua neskaren erru-gabetasuna defendatzeko bo-rrokatuko da. Akusaturiko gaz-tea, oso harroputza eta nahiko jasanezina izateaz gain, eragin handiko enpresaburu baten alaba da. Nortasun leherkor horrek pisu handia izango du istorioan.

Behin istorioa zein den argi-tuta minisail honetan zer to-patuko duzun labur azalduko dizut: Celine Buckens-en an-tzezpen lan bikaina buru dela, katigatzen zaituen istorio oso entretenigarri eta bizia. Kito, besterik ez. Ez dela nahikoa te-lesail bat nabarmentzeko? Ti-ra, zergatik ez? Batzuek hori da bilatzen dutena eta honek oso ondo betetzen du funtzio hori. Eszenaratzeari dagokionez, ai-tortuko dizut ez dela beste munduko ezer, nahiko arrunta da zentzu horretan, eta bisual-ki ere ez da batere berritzailea. Pantailari itsatsia mantentze-

ko beste elementu indartsu batzuk baditu ordea, telesail britainiar askok ere izan ohi dutena: asko harrapatzen duen istorio bizia, atal gutxi-tan hasi eta amaitzen dena eta eztabaidarako gaiak mahaigai-neratzen dituen. Ondo ma-rraztutako telesaila da, ondo p r o f i l a t u t a k o pertsonaiekin –estereotipatu samarrak diren arren– eta bere eginkizuna ezin hobeto bete-tzen duena: drama judiziala-ren elementuak dituen thriller oso entretenigarria da. Ikusle-ak krimenaren garapenean eta pertsonaien izaeran sakontze-ko aukera eskaintzen duena, pertsonalki, moralki eta profe-sionalki. Ez du iruzurrik egiten telesail honek, saltzen duen hori eskaintzen duelako.

## State of the Union

HBOMAX

Formatu laburraren erabilera ezin hobeto zukutzen duen te-lesaila, eta bereziki aktoreen lanean oinarritzen dena. 2019an, terapia ikus-entzunez-ko genero bihurtu duten tele-sail horietako bat estreinatu zen: “State of the Union”. «Na-zioaren egoera» esamolde eza-gunarekin hitz jokoa eginez,

bikote batek bere terapeutare-kin izango zuen harremana-ren analisia irudikatzen zuen. Zehazkiago esanda, terapiara sartu aurreko 10 minutuak ikusten genituen, kalean edo pareko tabernan zeuden bitar-tean.

Lehen denboraldian Chris O 'Dowd eta Rosamunde Pike-k osatzen zuten bikote hori, Tom eta Louis; ezkontza ahol-kularitzako saioaren aurreko 10 minutuetan zer esan eta zer egiten zuten ikusi genuen ata-lez atal. Horrela, 10 minutuko ataletan eta 10 asteko saioetan barrena beraien erlazioaren le-kuko bilakatu gintuzten.

Orain, hiru urte geroago, bi-kote berri baten gorabeherak izango ditu hizpide bigarren denboraldian. Brendan Glee-son eta Patricia Clarkson akto-re entzutetsuek Scott eta Ellen gorpuzten dituzte. 30 urte ez-konduta daraman bikotea osa-tzen duten arren, dibortzio po-sible baten alde onak eta txarrak aztertzen hasiak dira. Aurreko denboraldian ez beza-la, hizketaldi saio hauek tarte-an profesionalik gabe jorratu-ko dituzte, eta adostutako elkarriketa hauek ez dira hain komikoak izango, dramaren norabidea hartuz joango baiti-ra apurka.

## Estreinatzear

Horiez gain, gertutik jarraitu beharreko beste hiru izenburu iritsiko dira aurrean: Londresko metropoli eremuan bonbak indargabetzeaz arduratzen den polizia eskudroi bat ar-datz duen “Trigger Point”, “Life After Life”, izen bereko elebe-rrian oinarritzen den minisai-la eta Amazon Prime Videok estreinatuko duen “Chloe” dira nabarmenenak.



**Arantxa Urbe - @arantxaurre**  
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

## Badoan ikasturteari begira

**G**araiarekin batera, iritsi da balorazioa eta ebaluazioa egiteko tenorea Hezkuntza eremura. Garaian garaikoa. Berriz ere aurtan, nagusiki, neska-mutilak ikasi duten ala ez ebaluatuko dugu. Era guztietako ebaluazioak jarriko dira martxan: kalifikatibo klasisikoak zenbaki bati lotuak hezigune batzuetan; eta, bestetan, kalifikatibo eguneratuak –disimulatuak, nahi bada– esaldi batzuei lotuak, gainditu duten ala ez epaia emateko. Salbuespen dira, oraindik ere, ebaluazio hezitzailearen aldeko apustua egin dutenak, baina egon badaude, eta oxala urrats zailak ematen ari diren horiek bidean inspirazio izatea denentzat.

Ikasleak ebaluatzeaz gain, prozesuak, eskola antolaketak, eskuhartzeak, espazioak, denborak, hezitzaileak, curriculumak, metodologiak, harremanak, besteak beste, ebaluatu beharko genituzke. Ebaluazioaren helburua, ikasle bakoitzaren arrakasta, hezitzailearen praktika gogoetatsua, heziguneen eskaintzaren kalitatea, eta, azken batean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta Hezkuntzaren hobekuntza izatea nahi badugu, behintzat. Eta horrekin guztiarekin, etenik gabe, geure buruak ebaluatu beharko genituzke, noski.

Atzera begiratu eta 2021-2022 ikasturtea aztertuz ikusiko genuke, marra lodiei segika, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskarak hezkuntzan presentzia izateko borroka urtea izan dela; Nafarroa Garaian 0-3 zikloaren aldeko eta PAI ereduaren kontrako borroka urtea; eta Araban, Bizkain eta Gipuzkoan, berriz, Hezkuntza Itunaren urtea izan dela.

Bukatzeaz dugun ikasturtea, seguruenik, pandemia bukatu zela esan ziguten eta trantsizioa hasi zen urte gisa gogoratuko dugu. Baina nola kokatzen ari gara euskaldun bezala (herri zapaldu eta hizkuntza eta kultura gutxitua duen herri gisa, ondorioz) trantsizio horretan?

**Nire inguruan galdera bat luzatu dut: Nahikoa egin ote dugu, zer faltatu izan ote zaigu, euskal herri guztietarako izango den Euskal Eskola Herritarraren alde?** Lagun onak izaki, hainbat erantzun jaso ditut Hezkuntza eremuan diharduten eta ez dutenenak, eta haiek aipatutakoak dira honakoak: sinestea, iraultzarako indarra, talde kohesioa, gardentasuna, zintzotasuna, zehaztasuna, kexa, kritika, protesta, irudimena. Era berean, gauzak aldatzeko grina, gogoia, indarra galdu dugula aipatu didate, otzanak bihurtu garela, eta, bide batez, autokritika falta dela, norbanakoena eta eragileena. Badugu zertan hausnartua!

**Badoan ikasturtean ere izan dira Herri eraikuntza bidean Hezkuntzak egin beharko lukeen ekarpenaz proposamen interesgarriak.** Haietako bat, Hezkuntza Plazara taldeak egin duen eta hamaika norbanakok babestu duen Oinarritzko Hezkuntza Akordioa berritzeko deia. Akordio hori, 2006an jendarteratu zen, Nazio Garapen Biltzarrak bildu zituen hezkuntza arloko 78 lagun aski ezagun eta eragilek herritarren Hezkuntza eskubideetan eta Euskal Herria hezkuntzatik ere erakitzeke eskubidean oinarrituta. Zerikusirik ba ote du lagunek esandakoak zenbait lekutatik ekimen horrek jasotako erantzun epelarekin? •




Euskarak hezkuntzan presentzia izateko eskaera Irisarrin. Guillaume FAUVEAU



# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. MARIN FUNTSA. PACO MARI

## OTEIZA ETA CHILLIDA, AZKEN HORREN OMENALDIAN

1965eko abenduaren 15ean, Donostiako Bergara kalean Maria Isabel eta Maria Teresa Ramos ahizpek zuzenduriko Ramos liburudendako upategian kokatutako "Espelunca" galeria eta literatur txokoak Eduardo Chillida eskultorea omentzeko ekitaldia egin zuen. Prentsak hurrengo egunean eman zuen albistearen berri, eta Nestor Basterretxea eta Jorge Oteiza eskultoreak eta Jose Antonio Sistiaga eta Rafa Ruiz Balerdi margolariak (azken hori Madrildik etorri zen espresuki omenaldira) "lagunarteko" omenaldian izan zirela jakinarazi zuen. Ramon Zulaika eta Jose Artetxe idazleak eta Nicanor Zabaleta musikaria ere izan ziren bertan. Ekitaldiaren amaieran Jorge Oteizak Eduardo Chillidari zuzendutako hitz oso sentituak eskaini zituen. Esan zuenez, Euskal Herri osoak eskertzen zion bere lan artistikoaren mundu mailako oihartzuna. Paco Mariren argazkian Oteiza eta Chillida ageri dira hizketan ekitaldiaren une batean.





*ireki gure leihoa*

GAUR8

